

# Antzinako baztanera: XVIII. mendeko prediku argitaragabe bat

GORKA LEKAROZ MAZIZIOR\*

## 1. SARRERA

XVIII. eta XIX. mendeetako nafar testuen ondarea osatzen duten euskarazko eskuizkribuen artean, baztaneraren hainbat lekuko iritsi zaizkigu. Hizkuntzaren aldetik, denak ez dira molde bereko testuak: gaur egungo Baztango euskararen baitan herri batetik besterako aldea badagoela azpimarratu izan den bezala (Salaburu 1984a: 165 eta Zuazo 2003: 108, besteak beste), ezagutzen ditugun aspaldiko idazki baztandarrak, halaber, ez dira guztiz homogeneoak, testu garaikideek ere ez baitute beti hizkera berbera islatzen; litekeena da batzuk besteak baino lekuko hobeak izatea. Nolanahi ere, iraun duten XVIII-XIX. mendeetako testu gehienek orduko baztaneraren aski irudi koherentea eskaintzen dutela uste dugu, eta hizkera horren ezagupenerako bide erabilgarria direla. Ezagupen horretan sakondu nahi duenari aztergaia eskaini nahi diote ondorengo orrialdeok, baztanerazko beste eskuizkribu bat aurkeztuko baita, haraneko bertako eta inguruko eremuetako hainbat idazkiren argitan komentatuz<sup>1</sup>.

\* Euskal Filologian lizentziatua.

<sup>1</sup> Lan hau prestatzean alderaketarako erabili diren Baztango testu gehienak Bonaparte Ondarekoak dira: Bruno Echeniquek printzearen aginduz prestatutako Bibliako itzulpenak eta doktrina; Echeniquerena baino lehenagokoa omen den egile ezezaguneko beste doktrina bat; Juan Nicolás Echeverría elizondotarraren 1829 eta 1841 bitarteko hiru prediku; Elizondo bertako erretore zelarik Martín Goyenechek 1845-47an idatzitako beste hiru, nahiz Goyenechek berak A. Rodríguez jesuitaren liburuan oinarritutako 1850 inguruko itzulpena; XVIII. mende amaiera aldeko beste hamabost sermoi anonimo, San Bartolomeren ohorez idatzitakoa barne; Dámaso de Echeverría San Frantzisko Jabierri XIX. mende erdian-edo idatzitako bertsoak, eta Elizondoko nahiz Arraiozko zenbait kantu eta

Izenburuan adierazi denez, aurkeztuko den eskuizkribua predikua da, eta beste zenbaitekin batera Lesakako “Txallarrenia” etxean agertu zen duela urte batzuk. XIX. mendekoak dira han bildutako gehienak, nahiz eta aztergai dugun hau apur bat zaharragoa izan. Ez dakigu noiz eta zergatik heldu zen testua aipatutako etxera, baina ez da harrizkeoa han aurkitu izana, XIX. mendetik 1970era arte behintzat bizi izan baitzen apaizik bertan.

Predikua hari beltzez jositako koaderno batean idatzi zen. Koadernoaren erditik tolestutako eta bi aldeetatik aprobeztatutako bi orri osatzen dute; zortzi orrialde, beraz, guztira, eta lehendabiziko bostak eta seigarrenaren erdia hartzen ditu testuak. Letra txikia, txukuna eta ulergarria da, orrialdeak osorik betetzen dituena, eta zuzenketa-zirriborro nabarmenagirik gabea. Zortzigarren orrialdean, zenbait eragiketa eta gaztelerazko mezu bat ere badaude<sup>2</sup>. Paperak nahiko ongi iraun du, baina azaleko orrialdearen tolesguneetan zenbait hizki lausotu edo ezabatu dira. Neurriak hauek dira: c. 210 mm. luze eta 153 mm. zabal; ur-markak baditu.

## 2. AZTERGAIA: TESTUAREN KOKAPENA

Bi toki ezberdinetan adierazi zuen egileak predikua noiz erabili zuen. Azken orrialdean honako hau utzi zuen: “Sermon del 1<sup>o</sup> Domingo de Adviento predicado el año / de 1791”. Seigarren orrialdean, aldiz, predikuaren amaieraren azpian, “Sermon primo o la Dominica 2<sup>a</sup> de Advi. predicado / el año de 1791” dago idatzita.

Esan den bezala, testua Baztango euskaraz emana dator. Ez dago egilearen izenaren arrastorik, baina guztiz agerikoa ematen du, letrari begira, *NAO*n bildutako baztanerazko predikuetako batzuk eta honako hau esku berberak idatzi zituela<sup>3</sup>. Lan honetan zehar adieraziko denez, idazkerarena ez ezik ahaidetasuna frogatzeko beste argudio batzuk ere eman daitezkeela uste dugu.

otoitz labur. Rosa Miren Pagolak bildu eta aztertu ditu elkarrekin testu hauek guztiak (1995a: 75-469), horietako hainbat lehendik ere han-hemenka argitara emanda zeudelarik. Idazki gehienak Nafarroako Artxibo Orokorrean (aurrerantzean, *NAO*) daude gaur egun. Horiez gain, arestian aipatu J. N. Echeverriak berak argitaratutako doktrinaz (Echeverría 1826), eta 1750eko apezpiku-agiriaz ere (Ondarra 1982) baliatu gara.

<sup>2</sup> Honela dio: *Juan Arambide / natural Baygo- / rro: su padre / politico Meu / Jean Arambidi <a> / acreedor de / 2750. francos / siendo fiador / Fran<sup>co</sup>. Vicendoa.*

<sup>3</sup> *NAO*ko Bonaparte Ondareko B 132 katalogo-zenbakipean daude prediku horiek, “diez y seis sermones en bascuence” izena duen bilduman. Gure ustez egile berarenak diren testuak, bildumako bigarren tokian dauden sermoi-zatiak eta hamalagarrenetik hamazazpigarrenera bitartekoak dira (Pagola 1995a: 243-260 eta 344-375). Bestalde, sermoi-sorta horretako hirugarren, laugarren eta bosgarren predikuek (260-284) ez ditugu Baztango euskararen besteak bezain lekuko egokitzat hartu, hainbat hizkuntza ezaugarri dagokionean aztertutako gainerako idazkien ildo orokorretik urrun samar dabiltzala uste dugulako. Prediku hauen guztien argitalpenean hirugarren sermoiak eta bederatzigarrenetik hamahirugarrenera bitartekoek egile bera duketela adierazi zen (Pagola 1995a: 236) baina guri hirugarrena, beste esku batek idatzia ez ezik, hizkeraz ezberdina ere iruditzen zaigu.

## 3. HIZKUNTZAREN INGURUAN

## 3.1. Grafia

Egileak erabilitako grafia sistema ez da homogenea; sarritan zalantzan egon zela iradokitzen duten txandaketa kasu asko daude. Hona hemen horietako batzuk: *aizinean* (4) & *Aitzinat* (5), *aurquizen* (6) & *aurquitzen* (8), *baiñan* (3) & *Bayñan* (16), *Escogituec* (9) & *Escoxituac* (10), *gaistoendaco* (16) & *gaisstoena* (22), *gueyago* (2) & *gueiago* (6), *guziac* & *guciec* (9), *Enossentac* (14) & *inozente* (23), *iresten* (15) & *iretsten* (16), *meachazen* (1) & *meatchazen* (12), *padecitcera* (8) & *padezitu* (20), etab.

<i>, <j> eta <y> grafemen eremuak, adibidez, ez daude argi mugatuta. Hitz hasieran hirurak ageri dira, <j>, gehienetan, [x] ahoskera duten erdal hitzen ordaina emateko erabili zelarik: *Juez* (6), *juramentazen* (18). Diptongo amaieran askoz arruntagoa da <i>: *Sainduac* (1), *arrazoiñ* (2); baina <y> ere badago: *Soldaduey* (10), *picatuycan* (16), *ezbaytugu* (18). Erabileraren bateratasun ezaren adierazgarri, arrunta da grafema hauen arteko txandaketa: *Jau-nac* (3) & *yaunac* (4) & *Iaun* (7), *Iaquin* (2) & *Yaquin* (20). Kasurik aipagarriena, beharbada, 'Jangoiko' hitza da: itxurarik arruntena *Yangoyco-* (7) duen arren, forma hori *Iangoyco-*rekin (6) lehian dago, eta *Jangoico-* (1), *Iangoico-* (6) zein *Yangoico-* (7) ere badaude<sup>4</sup>.

<b> eta <v>-ren erabilera ere nahasia da. Hainbat hitz batera zein bestera daude idatzita: *veguiac* (13) & *beguien* (16), *veldurturican* (2) & *beldurzen* (12), *bere* & *vere* (1), *garbituric* (4) & *garvizeagatic* (6), *gaventanic* (11) & *gabentanic* (16). <v> ez da beraz maileguetarako bakarrik erabiltzen, baina horietan ere badago: *favore* (6), *virtute* (9), *provechuric* (14).

Agerpen urrikoa da <h>, eta ia beti erdal izen berezietan edota mailegu bidezko euskal hitzetan erabili zen: *Herodes* (2), *hohoratzen* (9), *humilac* (22). Salbuespena sarritan <h> duen (*h*)oc erakusle plurala da, bai absolutiboa (4), bai ergatiboa ere (16).

Latinezko -ti- <ci> idatzirik ageri da oro har: *satisfaccionea* (3), *Justicia* (16). Ez beti ordea, batzutan txandaketa dago eta: *correcciona* (14), baina *Correcciona* (14).

<gu> *e* eta *i* aurretik erabiltzean, herskari belarea ordezkatu zen: *gueyago* (2), *guizona* (23). <ge>, <gi> multzoak, aldiz, igurzkari belarearen isla dira, gaztelez bezala: *ligeroac* (7), *Escogituec* (9), *indigesto* (18); baina aldi berean *Escoxituac* (10) ere badago. Txandaketa horrek <x> ere igurzkari belarea ordezkatzeko ari dela iradokitzen du. Mailegatutako hitzetan aurkitu dugu ia salbuespenik gabe <x>: *trabaxu* (6), *quexatzen* (10), *lagun proximoari* (11), *Exemplu* (20).

<ss>-ren balioa, aldiz, ilunagoa da: batzutan txistukari igurzkari sabaiaurrekoaren ordain ematen du: *issurzen* (6); baina beste batzutan mihi-punta hobietakoaren adierazpen dirudi –*assaltazen* (18)– edo, segur aski, baita bizkar-hobietakoarena ere: *ur passterrera* (15)<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> Horiekin batera, deigarri iritzi diogun *Xangoycoaren* (2) ere badago behin, <x> argi eta garbi irakurtzen delarik.

<sup>5</sup> Joera nahasi horren adibide, besteak beste, cf. Pagola 1995a: 347 eta 372. Bertan, esku ezezagun honek berak idatzita, *soilqui* & *soilqui* (gure predikuan aldiz <ch>-z) edota *quessatzeaz* (gurean <x> bidez) ditugu. <ss>-ren zehaztasun eza, dena den, agerikoa izan da inguruko testu berriagoetan ere (Erroibarrerako, adibidez, ik. Ibarra 1997: 267).

<c> / <z> / <tc> / <tz>. Sail nahaspilatsua da hau ere: idazleak ugari erabili zituen bokal artean <z> nahiz <tz>, azken hau apur bat sarriagoa izanik. Amaierako posizioan <z> idatzi zuen beti: *auniz* (4), *iz* (11), *orraz* (15). Grafiak, dena den, afrikazioa adierazten du batzutan deklinabide-atzizkia gehitzearekin batera –*Aunitzec* (6), *orratza* (15)–, baina ez beti: *gorpuzeraño* (11). Sonante ostean ez dago afrikazio arrastorik: *berze* (1), *garzelan* (2), *Arranzale* (15); kontestu horretan, inoiz edo behin, <c> grafiaz baliatu zen: *garzelan*-en alboan *garcelan* (2) ere badago.

Nolanahi ere, azpian hots txistukaria duen <c> hori erdal jatorriko hitzetan baino ez dago ia. Oso salbuespen gutxi daude: *sarceco* (1), *guciec* (9), *Cergatic* (14); eta azken bietarako <z>-dun aldaera da nagusi testuan zehar.

Aditz izenetan usua da <tz> –*corregitzea* (1), *aditzera* (8)– baina <z> ere bai: *permitizen* (6), *botazen* (15). Sarritan txandaketa ere bada: horrela, *maitatzen* (8) hitzarekin batera *maitazen* (16) irakur daiteke. Orokorrean, apur bat arruntagoa da <tz> aditz izenetarako <z> baino, oso bakanak direlarik <tc> –*reprenditcen* (1)– nahiz <c>. Testu osoan zehar ez dago ze hautsiaren arrastorik.

## 3.2. Fonetika

### 3.2.1. Bokalak

Zenbait tinbre aldaketa aipatuko ditugu lehenik eta behin. Irekitzeei dagokienez, ohiko *e > a* gertatzen da *egon* aditzaren lehenaldiko forma trin-koetan: *baizagon* (3), *zaudela* [haiek] (4). *Eraqueria* (21) erabili zuen bestalde egileak testu honetan nahiz beste zenbaitetan, dardarkari alboko *o > a* bihurturik. *Edequi* (13) hitzeko *i > e* irekitzea, halaber, ezaguna da baztanerazko beste testu batzuetan ere (cf. *edequicitzue aita amoriosoaren ume fielac zuen arimen secreto guciac*, Pagola 1995a: 336).

Hersketen artean, aldiz, bada asimilazioz gertatutako *a > e*: *erematen* (6). *e > i* asimilazio atzerakariaren adibide da *iduiqui* (14), ondorengo bokal itxiak eraginda; *beraiquin* (6) eta *charrenain* (12) hitzetan, bestalde, [r] galdu ostean ondoko bokala itxi izanak diptongo bigarrenkaria eragin du. Maileguten artean *maldizitzen* (18) dago, eta aipatzekoa da *viguien* (10) ere, testuan *vegui* eta *begui* nagusi diren arren. Baztaneraz ohi bezala, halaber, erregularitasun osoz betetzen da sudurkari aurreko *o > u* lehen graduko erakusle singularretan: *unec* (1), *unengatic* (2)<sup>6</sup>. Era berean, *izigarrien* (21) ere badago, asimilazioa eta palatalizazioa gertatu direlarik.

Jarraian, agertu arren sistematikoak ez diren hainbat bilakabide aipatuko ditugu. Apokopea da horietako bat: nolabaiteko isuria antzeman daiteke testuan zehar, hainbat hitzek salatzen dutenez: *misteriosa* (2), *Enossentac* (14), *perfecta* (23); baina ugariagoak dira apokoperik gabeko adibideak: *amoriosoac* (6), *rigurosoac* (6), *imbidiosoac* (7), *prudente* (13), *obediente* (22), *inozente* (23), *Excelentea* (23). Aferesia ere, zenbait aditz laguntzaileraren sorketan azaleratzen da: *tu* (4), *zizu* (13), *zazue* (14); sekula ez ordea aditz partizipioetan (ez

<sup>6</sup> Ia salbuespenik gabeko joera da hori XVIII-XIX. mendeetako baztanerazko testuetan; araua hautsiz beti edo batzutan [o] darabilten testu gehienak, gainera, beste hainbat hizkuntza-ezaugarri begira ere orduko baztanera idatziaren eruditik aldenduta daudela iruditzen zaigu.

da *man*, *torri*, *cusi* itxurakorik) edo bestelako hitzetan<sup>7</sup>. Sinkopa, azkenik, erakusleetan besterik ez dago: *untaz* (2), adibidez<sup>8</sup>.

Aski arrunta da protesia, nahiz eta horretan ere salbuespenik baden: *erre-mediatzale* (2), *Erretiroa* (23), *errecivitu* (24); baina *reprenditcen* (1). *Iduritzen* (7), bestalde, metatesi adibide ezaguna da Baztango euskaran.

### 3.2.2. Diptongoak

*ai* diptongoa da usuena. Testuinguru batean baino gehiagotan bigarrenkari ageri da; alde batetik, [r]-ren galeraz ablatibo pluralean: *becatuetaic* (6), *otaic* (14); bestetik, arestian adierazi denez (3.2.1.), [r] galdu osteko bokal hersketaz sozietibo eta genitibo singularrean: *beraiquin* (6), *Eriain* (8), *charrenain* (12).

Gainerako diptongoei dagokienean, *au* > *a* murriztea gertatzen da *yan-goyco* hitza edonola erabilia ere, eta kontrako *a* > *au* diptongazioaren adibide dira *auniz* (4) eta *Aunitzec* (6); *eu* diptongoa, aldiz, belare epentetiko baten hautsia azaltzen da *negurzen* (6) hitzean. [r] baten erortzeak eragindako *ui* bigarrenkaria ere bada: *idurituican* (10), *picatuycan* (16). *Lizuinqueria* (1) dela eta, ezaguna da 'lizun' hitzaren aldaera diptongoduna garai eta hizkera bereko beste testu batzuetan (cf. Pagola 1995a: 331).

### 3.2.3. Hiatoak

Bokalez amaitutako lexemari mugatzailea eranstea ez dago tinbre aldatetarako joerarik. Horrenbestez *a + a > a* da: *Propheta* (2), *arima* (11); era berean, *e + a* eta *o + a* elkarketetan ez dago inolako disimilaziorik: *gaistoa* (5), *maitea* (12), *ondoan* (19), *legueac* (24). *i + a* eta *u + a* elkarketan emaitza *ia*, *ua* da gehienetan: *guzia* (8), *aundia* (18), edota *itsuac* (4), *burua* (14). Dena dela, bokal itxi batez hasitako hiatoen erdian kontsonante ahostun bigarrenkaria ageri da lantzean behin, bai belarea *-vigali* (3)-, bai ezpainkaria, *au* diptongo ostean: *Christaubac* (2, 13), *araubera* (6)<sup>9</sup>. Bestalde, bi kasutan besterik ez izan arren, *u + a > ue* bilakaera aurkitu dugu: *trabaxuezembaiten artean* (11), *naturaleza delicatue orrec* (23); bietan soberakoa da mugatzailea, harekin batera zenbatzailea edo erakuslea baitoaz, sintagma birritan mugatzen dela-

<sup>7</sup> Aferesia oso ohikoa da egun Baztango hizkeran (Zuazo 2003: 108), haran osoan hedapen bera ez omen duen arren (Salaburu 1996: 17-18). Testuetan XIX. mendearekin batera zabaltzen hasi zela esan daiteke: 1750eko eliz aginduan *ematen*, *emaztequiac*, *icusteaz* daude (Ondarra 1982: 391-392) eta XVIII. mendeko gainerako idazkietan ez dugu arrasto deigarriarik aurkitu, *zazu*ren tankerako adizkiez landara. XIX. mendeko lehenengo testuetan azaleratu, eta Juan Nicolás Echeverría bikarioaren lanetatik aurrera etenik gabea dela ematen du, baina inola ere ez sistematikoa, ezta Echeniqueren idazkietan ere. Mende bereko Ultzamako doktrinaren sendoa da aferesirako joera (Ibarra 1992: 921), eta Erroibarreko testuetan ere bai (Ibarra 1997: 270), baina Labaien eta Berakoetan ez (ik. Pagola 1995b), eta ezta NARBARTEKO J.R. Lacoizqueta apaizaren testuetan ere (ik. Ondarra 1994).

<sup>8</sup> Sinkopa ahula da testu zaharrenean, eta urriak dira adibideak: XVIII. mende amaierako testuetakoak dira, esaterako, *averasac baldin badira abrazei bezala* (Pagola 1995a: 239), edota *allagatu zen ertera ianguenezala bocadutho bat bedere* (361), baina testuetan ere sinkopa gabeko formak dira nagusi. Salbuespentzat jo daitezke, halaber, Echeverriaren doktrinako *trintate* (1826: 25) edota 1841eko San Joseren predikuko *ertendazut* (Pagola 1995a: 302). Maizago erabili zuen sinkopa Echeniquek: *aquitu zuelaic ertetic solas oc, atra cen Galileatic* (Pagola 1995a: 145).

<sup>9</sup> Kontsonante bigarrenkaririk gabeko *cristauac* (1) eta *christauna* (22) ere badaude testuan. Baztanerazko idazki zaharrek bi jokabide horiek bildu dituzte (epentesia nahiz epentesi eza), eta baita bokalerdiaren kontsonantizazioa ere *-christava*, *gava*, *arava* [=arava]-. Baztango Basaburuan bederen, ezaguna da gaur egun kontsonantizazio hori (Zelaieta 2004: 237).

rik<sup>10</sup>. Goiko bokala aurrekoa ere badenean, ostera, ez dago antzeko adibiderik; oso ahula da beraz a > e / {i, u}\_ asimilazio aurrerakariaren arrastoa<sup>11</sup>.

#### 3.2.4. Kontsonanteak

Hasierako posizioan, herskari ahostunak nahiz ahoskabeak erabili ziren. *Becatari* (1), *becatuaren* (1), *garzelan* (1), edota *gate* (2) daude alde batetik, eta bestetik *torpeac* (1), *pizturic* (4), *combidatzen* (16), *pocadu* (16), etab. Bokal artean, aldiz, ahostunen galera agertzen du testuak noizean behin: *aitu* (2) edo *viali* (3) esate baterako; baina azken horrekin batera bada *vigali* (3) ere, esan berri den bezala (3.2.3).

Oso ezaguna da, baztanerarena baino hedadura zabalagoan, *goatze* (17) bezalako hitzetan dagoen etimologiaz kanpoko herskari belarea. *Goraiñic* (13, 21) ere bilakabide berak sortua ematen du, baina azken hau, guk daki-gula, egile honek bakarrik erabili zuen [g]-z Baztanen; testu honetan ez ezik, Bonaparte Ondarean bildutako bere gainerakoetan ere badago *goraiñic*.

Dardarkari bakuna desagertu egin da, tarteka, bokal artean: *divinoai* (4); *-arazi* atzizkia ere  $r \rightarrow \emptyset$  bilakaeraren adibide da *-deteniazten* (4), *desesperaz-teco* (6)– txandaketarik badagoen arren: *galazi* (13), baina *galarazteco* (6). Txandaketa hori bera dago ablatibo pluralean (*-etaic* & *-etaric*, ik. 3.3.1) eta *-(r)ican* ere menderagailu kontzesiboa [r] gabe erabili zuen egileak, harekin lotutako aditz partizipioa *-i* amaieraduna ez zenean: *padecituican* (21), baina *icusirican* (14). Ez da harritzekoa *berze* (1), *ainberze* (4) edo *berzealde* (7) hitzetan gauzatutako errotazismoa; *merchede* (21) aldaera ere ezaguna da baztanerazko testuetan. Dardarkari aurreko bokal protetikoaren erabileraz, ik. 3.2.1.

Txistukariei dagokienez, aldiz, sonante + txistukari inguramenduan neutralizazioa iradokitzen du testuak, bizkar-hobietakoak zein mihi-punta hobietakoak igurzkari bidez adierazteko asmoa antzematen delako beti, grafia atalean aipatutako idazkera zalantzak gorabehera: *sarceco* (1) & *sarzea* (21), *garzelan* (1) & *garcelan* (2), *ilzen* (4), *persecucioneac* (6), *falso* (9), *pensamentu* (11), *Iaquinsunac* & *Yaquinsunac* (14), *Arranzale* (15), etab.

Sudurkarien osteko kontsonante herskariak ahostun nahiz ahoskabe ageri dira predikuan zehar, joera bateraturik gabe. Horrela, *mercimendu* (7) dago alde batetik, baina baita *pensamentu* (11) edota *entendimentu* (13) ere. *-on* amaieradun mailegu kultoen egokitzapenean amaierako sudurkariari eutsi zion testuaren egileak ia beti: *pasione* (12), *Correctioneac* (14); alabaina, bada salbuespenik hemen ere: *Estimacio* (10)<sup>12</sup>. Baztaneraz ohi den bezala, amaie-

<sup>10</sup> Soberako mugatzaile horren agerpena Baztango beste testu garaikide batzuetan dokumentatua dago (cf. *hoc zuten zelo eta cuidado aundia ura*, Pagola 1995a: 252; *videa au eracustendiot*, 330). Aztergai dugun testuan bertan bada  $u + a > ue$  bilakaera izan ez duen bestelako adibiderik ere: *bere gloria sainduara* (18); Baztandik at, inguruko beste hizkera batzuetako ezaugarri ere bada hau (zehatzago in Zelaieta 2004: 240).

<sup>11</sup> Asimilazio eza ia-ia salbuespenik gabea da baztanerazko testu zaharretan, gaur egungo ahozko erabilera erabat bestelakoa bada ere (Salaburu 1996: 20). Hegoalderago, Erroibarren, erruz bete izan da asimilazioa gaur arte, XIX. mendeko testuetan hain nabarmen ez agertu arren (Ibarra 2000: 42). Ultzaman, aldiz, oso oparoa da egun (Ibarra 1995: 130), eta testu zaharagoetan ere bai (Ibarra 1992: 923-924). Iparralderago, ordea, Baztangoan ez ezik inguruko beste hizkeretan ere zeharo ahula da antzina-ko idazki garaikideek islatutako asimilazio maila: Bertizaranan bildutakoetan urria da gutziz, eta Labaien zein Berako doktrinatan ez dago aztarnarik.

rako sudurkariaren galera dago *orai* (11) aditzondoan, eta sudurkari baten gehiketa, aldiz, *Iaquinsunac* izenondoan (14).

Tarteka, kontsonante sabaikarien erabilpena salatzen du grafiak, baina asimilazio bustidura indartsurik gabe. <ñ> grafema, adibidez, [i] bokalerdidun diptongo ostean bakarrik erabili zen. Bokalerdia agerian dago gehiengotan: *arrazoiñ* (2), *goraiñic* (13), *arraiñ* (15); baina ez azaleratzea ere gerta daiteke: *noraño* (7). Dena den, diptongo ondorengo sudurkari guztiak ez ziren <ñ> bidez adierazi: *ain* (2), *beinere* (6).

Testuan zehar sudurkariaren palatalizazioa euskal jatorridun hitzetan gorpuztu ohi den arren, <ñ> baino bakanagoa den <ll> grafema mailegutan besterik ez zen erabili: *maravillac* (2), *llagaetaric* (4). Kasuren batean arrazoi etimologiko argirik gabe gainera, ez duelarik, antza, ahoskera sabaikaririk islatzen: *allegatzentuen pretestoac* [= gazt. *alegar*] (23). Ez da, bestalde, hortzetako herskari ahoskabearen sabaikaritzerik ageri<sup>13</sup>.

Sandhiak direla eta, *ez + z > etz* sistematikoa da: *etzuela* (3); baina *ez + d* eta *ez + b* bilkuretan adibide bakarra aurkitu dugu: *ignorantebatec (...)* *eztu ateraco (...)* *provechuric* (14); gainerako kasu guztietan jokaera *ezbailu* (3) eta *ezdelaric* (21) adibideena bezalakoa da. *Bait-* aurrizkiaren ondoren ere ez dago erabateko erregulartasunik: *bait + d > t* da beti *-baitira* (20)– baina txandaketa dago *bait + z* gertatzen denean: *baitzuen* (5), baina *baizuen* (10). Esandakoaz gain, aipagarriak dira *Sinetzazue* (14) eta *ur passterrera* (15) ere.

### 3.3. Morfologia

#### 3.3.1. Izenaren morfologia

Guregana heldu diren XVIII-XIX. mendeetako Baztango testuetan ez dago deklinabideari dagokionean jokaera bakar aldagaitza; bai ordea ildo orokor argi samarra, eta ildo horri jarraitzen zaio prediku hau ere, segidan ikusiko den bezala.

Absolutibo eta ergatibo pluraleko *-ak* eta *-ek* atzizkien arteko muga nahikoa garbia da, ia beti ongi bereizita baitaude, ondorengo pasarte honetan ikus daitekeenez: *aituzuenan preso artu bearzutela etzen escapatu, ez eta ere gordetu munducoec eguitendutenbezala* (9). Salbuespena da horregatik testuan honako hau: *ala erratendacuta San Marcos eta San Matheo Evangelistac* (2)<sup>14</sup>. Datiboan, aldiz, txandaketa dago: singularrean *-ari* da nagusi, baina *-ai* ere bada: *divinoai* (4); pluralean, aldiz, *-ei* & *-ey* ez ezik, *-eri* ere aurkitu dugu: *desordenatueri* (1).

<sup>12</sup> XVIII. mendeko testuetan amaierako sudurkaridun formak dira arruntenak (*ocassione, passione; oracione, accione; peonac, leona*), eta *pasio* edo *salvacio* bezalakoak besterik ez darabiltzaten testuak beste ezaugarri batzuetan ere baztaneraren ildotik urrunago dabilta. XIX. mendeko Juan Nicolás Echeverría eta Martín Goyenecheren idazkietan ere sudurkaria dago gehiengotan; Echenique, dena den, *-cio* atzizkiak baliatu zen beti.

<sup>13</sup> Bai ordea Bonaparte Ondarean bildutako esku beraren beste testuetan; cf. *erratendio ardezala pocadutho bat bedere, cussaretathobat bedere edo thanthatho bat bedere* (Pagola 1995a: 360). Izan ere, ez da falta bustidura adierazkorrik baztanerazko testu zaharretan. Goyenechek 1850 aldera emandako *falta ttipietaz casu eguitera* edo *maizcotto confesatcea* ere (Pagola 1995a: 413 eta 414) horren lekuko dira.

<sup>14</sup> Baztanen jasotako antzinako idazkien artean, izan ere, absolutibo eta ergatibo plurala *ia beti* ongi bereizita ditzutenak dira nagusi. Hainbat testutan noizbehinkako zalantzak daude eta *ak/ek* bereizketa oso gutxitan da erabatekoa (salbuespen nagusia, ergatibo pluralerako inolako hutsik egin gabe *-ek* erabili zuen Echenique delarik). NORK pluralean beti edo ia beti *-ak* darabilten ale bakanak, beste hainbat ezaugarritan ere bazterrekoak dira testu gehienek markatutako estandarren aldean.

Genitiborako sarrienik *-aren* atzizkiaz baliatu arren, beranduago Echeniqueren testuetan ia salbuespenik gabe gertatutako *-aren* > *-ain* bilakaera ez zen idazlearentzat ezezaguna: horren adierazgarri dira *Eriain* (8) eta *charrenain* (12)<sup>15</sup>. Destinatio adibide bakarra dago, eta hartan *-daco* da atzizkia, Baztango idazkietan ohikoa den bezala: *gaistoendaco* (16)<sup>16</sup>.

Ablatibo pluralerako erabilitako atzizkia *-etaric* da gehienetan *-guzietaric* (23)–, baina Baztango beste hainbat predikutan bezalaxe dardarkaririk gabeko forma ere bada tarteka: *becatuetaic* (6) & *becatuetaric* (13). Ablatibo zein inesibo pluralean, bestalde, lexema *-a* amaieradun mailegua izanez gero, pluralaren atzizkia *-a* horren gainean ezarri zen: *ala nola manifestatu baitzituen bere virtute aundiac fortunaetan* (9); *corregizentuelaric beren faltaetaric* (10)<sup>17</sup>. Adlatiboa adierazteko *-ra* atzizkia da nagusi, baina inoiz edo behin amaieran *-t* hartuta: *Aitzinat* (5), *echeat* (15)<sup>18</sup>; prolatiboa, aldiz, *-taco* bidez emanda datorrela dirudi: *Tratadezagun bada ezagutzeaz Xto gure Jauna gure Maistrutaco* (22). Inesiboa adierazteko ekialdeko *baitan* erabili zuen egileak bi pasartetan; bizidunen inesiboa genitiboaren gainean dago sortua *–Bienaventuratuadela aren baitan escandalizatzen ezdena* (4)– eta bizigabe itxurakoa, aldiz, absolutiboa lagun duela: *beardugu confiatu langoycoaren borondate saildua baitan* (6)<sup>19</sup>.

Erakusleen alorrean, bestalde, arestian aipatutako (*h*)oc da lehen graduko absolutibo nahiz ergatiborako forma plurala (ik. 3.1.) eta hartatik eratorriak dira gainerako kasuetakoak: *oquen* (4), *oquin* (13), *otaic* (14), etab. Hiruga-

<sup>15</sup> Testuaren egileak ildo bereko *batain* (Pagola 1995a: 251), *guyagoin* (354) edota *buruain* (374) idatzi zituen -tarteka baino ez, bestalde- Bonaparte Ondarean bildutako predikuetan; gainera, genitiboari ez ezik, haren gainean eraturako kasuei dagozkien adibideak ere utzi zizkigun: *gorputzaindaco* (245), *bazcoaiquin* (& *Bazcoarequin*; 365). 1800 inguruko S. Bartolomen sermoian eta beranduagoko Goyenecheren lanetan ere bilakaera berberaren arrasto batzuk daude. Goyenecherena da honako adibide hau: *egun gucia guelditcen-da lanen-daco, ofcinaindaco, tratuaindaco, asuntuaindaco* (Pagola 1995a: 407). Nolanahi ere, Echenique izan zen idatzian ia beti *-ain* (eta ez *-aren*) hautatu zuen idazle bakarra.

<sup>16</sup> Testu garaikideetan *-dako* & *-tako* da atzizki nagusi eta sarritan bakarra. Zenbait idazkitan, dena den, *-(t)zat* atzizkiarekin txandaketa dago (cf. 1840ko *ondasunac izatea da tentacione eguiazcoa virtute flacoa duen batenzat* eta ondoan duen *idurenzazayo [sic] arendaco direla escriptuac Evagelioan*, Pagola 1995a: 291). Echeverriaren 1826ko doktrinan *-(t)zat* hutsa dago, baina oso noizbehinkako joera da.

<sup>17</sup> Bonaparte Ondareko testuetan aipatu bi kasuekin zein beste batzuekin lotutako adibide gehiago aurki daitezke, hala nola *burlaengatic* (Pagola 1995a: 251), *arpeñetan* (252), *obraez* (255), *batallaen* (257), *alegriaequin* (338), *gauzaetaric* (340) edo *gauzaetara* (& *gaucetara*) (340), nahiz eta bilakabidea ez den salbuespenik gabe mailegatutako hitzetan gertatzen, ondorengo adibideak erakutsi bezala: *Norc pondera detzaque (...) padecitucituen peligruc (...) ladronen partetic eta bere anayaen partetic?* (Pagola 1995a: 251). Bestalde, jokabide honek hego-nafarrerako testuetan ere utzi zuen arrastoa: 1729ko predikuan *honraetan* ageri da (Ondarra 1981: 169); Joakin Lizarragak ere idatzi zuen antzekorik, esate baterako *laurac tüzü itzgonen laur letraetan* edota *carröza laur erruedaéqui, bida principalénac fédea ta léguea* (Pagola 1996: 1130). Ongi hiltzeko otoitz anonimo batean ere *estayen galdü Satanasen astuciaequi* irakur daiteke (Pagola 1996: 1084); Oltzako Iberoko gurutze-bidean, aitzitik, *arimaietan* eta *penaiaetan* erabili ziren (Camino 2003b: 172 eta 178). Baztanen bezala hegoalderagoko testuetan, dena den, joera biak ageri dira sarritan elkarrekin; alegia, asko dira hego-nafarreran zehar *-a* itsatsi horren arrastorik gabeko adibideak ere. Lizarragarengan, esaterako, *gauzetán* (Pagola 1996: 1130), *lláguen* (1136), etab.

<sup>18</sup> XVIII-XIX. mendeetako testu baztandarren erdiak baino gehixeago dira aldez edo moldez *-ra* / *-(r)at* bikoiztasunaren lekuko. Hala ere, oso idatzi gutxitan ageri da bigarren atzizkia lehendabizikoa bezainbeste: hainbat testutan *arat*, *unat* edo *aitcinat* bezalako ez bezalako landara ez du emankortasunik.

<sup>19</sup> Ekialdeko kutsua duen *baitan* hori bezalaxe, hego-nafarreran eta bereziki ekialdeko mintzotetan da ezaguna idazle anonimo honek bere beste prediku batean utzitako instrumentalaren erabilera hau: *gaubazco otzarequin ormatcen ninzen, eta egunazco beroarequin abrasatcen ninzen* (Pagola 1995a: 257).

rren gradukoetan berbera da jokabidea, *equin* (10) formak salatzen duenez. Horrezaz gain, lexemari loturik ere aurki daiteke *-oc: combertitzeco Jangoicoaren graciara becatari miserableoc* (1). Erakusle singularretako hasierako *o > u* bilakaeraz, ik. 3.2.1.

Pluraleko 1. pertsonako izenordaina genitiboan erabiltzean *gure* da nagusi, baina batzutan *gueren* erabili zen indargarri: *purificatu eta garvizeagatic gueren becatuetaic* (6). Era berean, *zure*-rekin batera behin *zere* dago: *zer misterio da Iangoycoac vigaldiezazun trabaxu, desgracia eta pobre zembait zere ontasunetan?* (12)<sup>20</sup>.

Ekialdeko usadioari jarraituz, *guzi* dugu –inoiz edo behin *guci* (9) idatzita– zenbatzaile zein izenordain gisa; *bi* eta *bida*, bestalde, argi eta garbi bereizita daude, azkenak izenordain funtzioa betetzen duelarik: *bi gauza* (1), *bere discipuloetaric bida* (2).

Atzizkiei dagokienez, *Arranzale* hitzaren alboan Nafarroa eta Iparraldeko *Arranzari* (15) erabilita dagoela aipa daiteke; gainerakoan, *-ca (indarca)*, *-sun (Jaquinsunac)* eta beste hainbat atzizki arrunt ere badaude: *-queria*, *-garri*, *-qui*, *-tza*, eta abar.

### 3.3.2. Aditzaren morfologia

Atal honetan ere, predikua antzinako beste testu baztandar gehienen ildo orokorrari jarraitzen zaio. Aipamen batzuk egingo ditugu, horren erakusgarri.

Alde batetik, eta ia salbuespenik gabe, aditz oin hutsa baliatu zuen egi-leak ahalera, subjuntibo eta agintera adizkien ondoan: *garaizezaten* (2), *sofri detzaquegun* (7), *Ycaszazue* (22); baina *viali etzezangatic* (2).

Partizipio analogikorik badago, bestalde, neurri batean bada ere. Baztanerazko testu zaharretan usuen erabilitako *botatu*, *izandu* ez ditugu aurkitu, baina bai *atera* eta *gorderen* oinarrian sortutako partizipioak: *ez eta ere gorde-tu munducoec eguitendutenbezala* (9); *naiduenean arranzatu eta ateratu bere becatuetic* (16).

Geroaldiaz ari garelarik, aipatzekoa da testuan *-tuc* ageri dela, eta ez *-tico: aprobechatuco zaizue* (14)<sup>21</sup>. Era berean, *-n* bukaeradun partizipioetan *-en* da (eta ez *-ko*) geroaldia sortzeko erabilitako morfema: *izanenzate* (24), *Emanendu* (24)<sup>22</sup>.

Espero zitekeen bezala, gainera, *-te-* dago beti *ematen* (3) edo *izaten* (22) bezalako aditz izenetan. Bortzirietako testuetan arrunta den herskari hortze-

<sup>20</sup> Bikoiztasun hori hizkera honetako beste testu batzuetan ere ageri da (cf. *Eman diezaguzu egun gure eguneroco oguia eta barcadiezaguzu guri geren zorrac*, Salaburu 1987: 455). Baztanera zaharreko ia testu guztietan *cer*, *ceren*, *gueren* itxurakoak dira indartzeko erabilitako formak.

<sup>21</sup> Indarrean da gaur egun Baztanen *-tiko* (Zuazo 2003: 108), baina ez dago arrastorik aztertu ditugun 1900era bitarteko testuetan. Beste horrenbeste antzeman zuen Erroibarrez ari zelarik Orreaga Ibarrek (2000: 195) eta testu zaharretan adibiderik ez aurkitu ondoren berrikuntzat jo zuen *-tiko*. Deigarria da, nolana ere, 1800 inguruko San Bartolomeren sermoian *-tecoc* dakarrela behin baino gehiagotan etorkizun balioa: *nic parateco dazquitzuet itzac agoan* (Pagola 1995a: 381; *-tuc* transkribatua baina gure ustez eskuizkribuan argi eta garbi *-e-duna*); *nolaco errabiadura eta colera loteco citzayen Etsayaren ministro equi* (382).

<sup>22</sup> Baztanera zaharretan *-en* da morfemarik erabiliena *-n* / *-l* amaieradun partizipio ostean, nahiz eta bazterreko samarrak diruditen XVIII. mende amaierako testuetan tarteka *es(s)ango*, *izango* ere irakur daitekeen. *-an* bukaera duten partizipioetan *-anen* > *-ain* bilakaera (*izain*, *main*, *errain*, *eremain*) salbuespenik gabe betetzen da Echenique eta Goyenecheren idazkietan –hau da, XIX. mende erdialdetik aurrera–, baina ahula da ordura artekoetan.

takoaren sabaikaritzetik (*ematten...*) ez dago beraz, ez eta ekialderagoko *-ite*-dun formarik ere.

Aditz laguntzailea aztergai hartuta, honako xehetasun hauek azpimarratuko ditugu:

- Pluralgileen artean, ez dago prediku osoan *-zki*-ren aztarnarik<sup>23</sup>. Bai ordea *-z-* / *-zt*<sup>24</sup>, hainbat aditz saili uztartuta: *dazcu* (1), *daztela* (6), *daduzcalaric* (17), *zaizcun* (18). *-it-* bidez sortua da *zituen* (2) eta, halaber, *tiola* (14) dago NOR-NORI-NORK sailean<sup>25</sup> eta *tu*, *tuzu* edo *tuzte* NOR-NORK saileko osagarri pluraldun formetan, nafarreraz ohi bezala; horrezaz gain, indikatibotik kanpo, *-t-* hutsak adierazten du sarritan plurala: *deztaquegun* (7), *letzaquela* (8) (cf. ‘*dezazkegu*’, ‘*lezazke*’, Salaburu 1984b: 226), *baletza* (8), *guenetzaquen* (18), *guiniotzoquen* (18).
- *-zue* aditz morfema erabili zuen beti predikuaren egileak pluraleko 2. persona adierazterakoan *-duzue* (2)–, eta inoiz ez hegoalderago hain arrunta zen *-zie*, edota Baztangoizako *-ze*. Era berean *-e* dugu datiboko 3. pertsona pluralerako, eta ez *-ote*: *zizaien* (3)<sup>26</sup>.
- NOR-NORI-NORK sailean bi tankera ezberdineko formak daude, Baztan aldeko testu zaharretako joera nagusiarekin bat eginez. Datiboa ‘hari’ denean *\*-i-* errodunak ditugu: *diozuna* (11), *diolaric* (16), *ezdiogu* (20); eta gainerako kasuetan *\*eradun* gisakoak: *dabelaric* (4), *dacuna* (5), *dazcun* (6), *daztela* (6)<sup>27</sup>.
- Predikuan zehar NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailetako adizkiak zuzen bereizita daude oro har, zein bere kontestuan erabilita, salbuespenen bat gorabehera: *combidatzenbaitu maitazen eta servizazendioten*

<sup>23</sup> Aztarnarik ez egote hori aukeratutako N-NI-NK adizki konkretuen ondorio hutsa da. Izan ere, baztanerazko testu zaharretan badago *-zki-*, 21. oharrean aipatutako *dazquitzuet* lekuko, eta gure aztergaia sortu zuen eskuak ere forma hori bera idatzi zuen, esaterako, beste prediku batean (Pagola 1995a: 345). Baztanera garbien ematen duten testuetan, *-zki-* 3. pertsonako datiborik gabeko kontestuetan ageri da beti: *dazquidazun* (243), *dazquitzuet* (315), etab.

<sup>24</sup> *-z-*, datiboa 1. pertsonakoa denean ageri da testuetan, batzutan *-zki-*rekin lehian: *dazcu* nahiz *dazquigu* daude 1798ko prediku batean (Pagola 1995a: 329 eta 333). *-zt-*, aldiz, *dazte* bezalako ‘haiei’ datibodun formetako pluralgilea da.

<sup>25</sup> XVIII. mende amaierarako, erabat zabaldua bide zegoen Baztanen *-zki-* > *-it-* berrikuntza ‘hari’ datibodun N-NI-NK saileko forma pluralerako (1780-1800 bitartekoak dira *tiogu*, *zitiozten*, *tiozte* edota *ditiozue*, adibidez). Baztandartzat jotako testuren batean bada bestelako formarik ere (cf. *ceñec essango dizquiote Jaungoicoari bere gaistaqueriac*, Pagola 1995a: 278) baina eredu zaharrari jarraitzearen seinalea baino, testuok baztaneratik urrun samar egotearena iruditzen zaigu oraingoan ere.

<sup>26</sup> *-zie-* eta *-ze-* morfemek, duela bi mendeko Baztango euskara mintzatuan ezagunak izatera, ez zuten idatzizko arrastorik utzi; 3. pertsona pluraleko *-ote* datiboa, berriz, oso noizbehinkakoa da testuetan eta baztaneraren eredu egokitze hartu ez ditugunetan baino ez dago: cf. 1788ko *gure Jaunac predicatu eta eracusi cizquiotele bere seguimentuan iuanciren iende guciei* (Pagola 1995a: 271). Gaur egungo mintzoan, ostera, *dezakeze*, *dakuze*, *zaiote*, *nioten*, eta antzeko beste forma bizi ugari bildu ditu Salaburuk (1984b: 215 eta hurr.).

<sup>27</sup> Bonaparte Ondareko pasarte ilun samar batean, 3. pertsona singularreko datiboa behar denerako ere *\*eradun*-etik eratorritako ordaina (*dabe*) hartzen dela ematen du, sinkretismoa gertatuta-edo: *bienabenturatu guziec errecibitcen duten gustoec, causatzen dabe batbederari ainberze alegria* (Pagola 1995a: 371); edonola ere, salbuespena da. Datiboa 3. pertsona pluralekoa denean, aldiz, bi joeren arteko lehia dago. ‘Dizkie’-rako, adibidez, *dazte* (Pagola 1995a: 338) eta *dieztela* (384) ditugu 1800 inguruko bi testutan. *\*Eradun*-ek antzinako baztaneraz utzitako lekukoaren artean, bestalde, *-a-* izan ohi da laguntzailearen arrasto bakarra, baina *-era-* itxurako adibideren bat gorde da: 1750ekoak da ‘dizkiegu’ balioa duen *derabeztegaric* (Ondarra 1982: 392), eta Salaburuk bildu duen Echeniquerenaz aurreko doktrina anonimoan *deraztegun* dago (1987: 466), honakoan *deztegun* adizkiarekin batera (455) ageri den arren.

*guziac* (16). Datiboa agerian dagoenean, halaber, harekiko komunztadura akatsik gabe dago gordeta aditz formetan<sup>28</sup>.

### 3.4. Sintaxia

Oso maiz hartzen du aditz izenaren osagarri zuzenak genitiboaren marka, absolutiboaren markaren orde: *oquen galarazteco eta desesperazteco* (6), *gure galarazteagatic* (6), *munduaren Salvazera* (20)<sup>29</sup>.

Gehienetan adjektiboa *bat* zenbatzailearen atzetik agertzen da, ez aurretik: *Iduritzenzaizue dela Yangoicobat cruela* (7); *Usteduzue dela Iaunbat imbidioso* (7); *da Medicubat beratcha* (8); *cergatic baita izatebat choil perfecta* (23). Ez beti ordea: *Emanendu Zuetaz testimonio gozoso bat* (24).

Nafarroan zehar aski ezaguna den *utzi* aditzaren *-t(z)era* bidezko nominalizazioaz baliatu zen bestalde egilea: *utzinaigaitu padecitcera* (8)<sup>30</sup>.

Perpau konpletiboak sortzerakoan *-ela* da nagusi: *Aunitzec ustedute (...)* *bigalzendaztela Iangoicoac oquen galarazteco* (6). Badago konpletibo balioko subjuntiborik, honako adibide hau lekuko: *ezbaitu nai desperdiciadadien gure persecucioneen dembora au* (7); dena den, gutxitan azaltzen da, eta are bakana goak dira nominalizazio bidezko egitura konpletiboak: *encargatzen dabelaric errateco (...)* *icusi eta aitudutenguzia* (4). Zehargaldera batzuetan, bestalde, *ea* dago *-n* menderagailuaren indargarri: *galdeeguinzezatela ea urazen ala ez etorribearzuena* (2). Erlatibozko perpau gehienek ere *-n* hartzen dute, baina tarteka *zein... bait* da menderagailua, eta aldi behin *zein & zein* hutsak ere bai: *issurzendu balsamua, eta Olio zeinequin uztendu sendatua* (7); *desonesqueriaco iz, pensamentu eta obra torpeoric, zeinec daucate itsusturic zure arima* (11).

Kausazko perpauak eratzeko ez da ikusten S. Bartolomeren predikuko edota Echeniqueren testuetako *-lacotz* menderagailurik<sup>31</sup>. Bai ordea sarritan *cergatic & zergatic(an)*, bakarrik nahiz ondoren *bait-* dagoela: *zergatic (...)* *beiti beardugu confiatu Iangoycoaren borondate saindua baitan* (6); *Cergaticzebaitu ezagutzen Iangoycoac vigalzentiola bere becatuen corregitzeco* (14).

<sup>28</sup> Ezaugarri hauei dagokienez Baztango testu asko irregularragoak dira. Hona, alde batetik, aztergai dugun esku berberak beste prediku batean idatzitako hau: *asqui dela comeatceca urtean bein Elizac manatcen gaituen bezala* (Pagola 1995a: 360). Datiboarekiko komunztadura ezari dagokionez, bestetik, hainbat adibide dago XVIII-XIX. mendeetako testuetan; cf. Martín Goyenechek ia elkarren jarraian emandako *agradatuco zion Yangoicoari eta etzuen agradatuco Yangoicoari* (Pagola 1995a: 403).

<sup>29</sup> Baztanera zaharrea genitibo honen aldeko isuria nabaria da. 1750eko agirikoa da adibide hau: *gure issitic egoite cortes hau hizan ezdadien bada causa, eta motiboa fielen seculacotz galceco* (Ondarra 1982: 392); honako beste hau, aldiz, Echeniquek emana da: *eman zaben podorea izpiritu gaichtoac quentzeco, eta oñace ta eritasun gucién sendatzeco* (Pagola 1995a: 122). Azken adibide honek erakusten duenez, erabilpena ez zen sistematikoa; esate baterako, askoz arruntagoa da genitiboa Goyenecherean idazkietan, Echeverriarenetan baino.

<sup>30</sup> *Utzi* aditzarekin ez ezik, bai beste zenbaitekin ere erabiltzen da egun ekialdean adlatiboa (Zuazo 1998: 13); antzinako baztaneraz, orobat, hedapen handiko jokabidea bide zen hura, eta beste zenbait aditzek betetzen zuten. *NAOn* bildutako ondorengo pasarte hauek ditugu adibide: *chutitzera laguntzeco* (Pagola 1995a: 302); *naturalezac verac eracustendacu arcera damu eta urriquimendua* (319); *procuratu bearditu guiristinoac imitatcera* (333); *permitteduco datazu galdetcera* (343); *cerengatic gure Iangoyco liberalac ofrecitcen dion ucutzen da errecibitcera?* (359).

<sup>31</sup> Izan ere, gure aztergaietan *-coz* amaieradun hitz bakarra dago: *untaracoz* (5). *Seculaco* (19), aldiz, bukaerako txistukaririk gabe emanda dator. Esku berekotzat jo ditugun gainerako testuetan *-co* hutsa baino maizago aurkitu dugu *-co(t)z* (*ortaracotz*, *untaraco(t)z*, *seculaco(t)z*, *beticotz*), baina haietan ere ez dago kausazko *-lacotz* horren adibiderik, eta helburuzkoetan ere ia salbuespenik gabea da txistukari gabeko *-t(z)eco* menderagailuaren nagusitasuna, bi salbuespen besterik ez daudela: *allagatzecotz eta gozatzecotz* (Pagola 1995a: 245).

Kontzesiboetan pleonasmodun *-ican* (& *-ycan*) ere da erabilitako bidea, batzutan *naiz* lagun duelarik: *naiz urricaldyucanere bere Eriain nigarrez* (8); *naiz munduari idurituican ere direla Iangoycoaren castiguac* (10)<sup>32</sup>.

Helburuzko perpausak bi multzo handitan bana daitezke. Alde batetik, *-t(z)eco* & *-zeco* & *-ceco* nominalizazioek sorturikoak daude (ik. 31. oharra): *trabaxuac zervitzazenzaizcula (...) corregitzeco eta purgazeco gure becatuac* (19); bestetik, subjuntibo bidez eraturakoak ditugu, bai subjuntibo hutsez *-segui-zizue unen Virtute aundiac (...) mucha etzaitzten munduco becatueq[ui]*<sup>33</sup> (23)–, bai subjuntiboari *-gatic* erantsita: *Arranzaleac uztendu tiratu gabentanic Amua iretsdezangatic pocadu ura* (16)<sup>33</sup>.

Konparaziozkoen artean honako perpaus hau nabarmendu daiteke: *zembatenaz cruelago manifestazenden orduan gueyago maitatzengaitu* (8). Kontsekutibo eitea du beste honek: *ainSaindua, ain inozente eta Exemplareaunditacoa, zeinnetan aurquituezbaizen culpa eta becuric* (23).

### 3.5. Lexikoa

Erdal kutsuko hitzetarako joera ukaezina da testuan zehar. Batzutan esaldi osoak ere harrapatu zituen joera horrek: *Xto gure Jaunac comprenditu baitzuen San Joanen intencionea errespondituzion uni prudencia aundiarequin* (5); *pretendizen baitute confianza bano batequin alcanzazea Zeruco gloria* (21). Dena den, isuri horrekin batera *edo* juntagailuak lotutako sinonimo bikotea eman zuen egileak hogeit bat alditan, eta bikote horietako zenbaitetan erdal itxurako ele baten ondoan euskal ordain jatorragoa ezarri zuen: *pregunta edo galde eguiteau* (2), *sanatu edo sendaturic* (4), *itzul azteco edo combertizeco* (15).

Lan honetako hiztegi atala osatzen duten hitzen artean, baztanerarekin estu loturiko hainbat bildu nahi izan ditugu. Esate baterako *equendu* (1), *bida* (2), *beratcha* (8), *berratzen* (10), *Edequi* (13), *goraiñic* (13), *erematen* (15), edota *merchede* (21) (ik. 7. atala).

## 4. EDIZIOA

Gure asmoa jatorrizko testua dagoen-dagoenean eskaintzea izan da, eta funtsean bete dela uste dugu. Irakurketa zaila edo duda-mudazkoa gertatu zaigun kasuetan, <> ikurraz baliatu gara; egileak behin eta berriro laburturik emandako hitz gehienak deslaburtu egin ditugu, eta noizbehinkako laburdurak *claudator* artean eman ditugu. Lanak izan ditugu batzutan hitzak edo hitz zatiak bildurik edo banandurik ote dauden erabakitzen; gure ustean egileak lotuta idatzitakoak, lotuta eman ditugu guk ere.

<sup>32</sup> Perpaus kontzesiboetatik at, ez da arrunta testuan *-(r)ican* itxurako amaieren agerpena: *veldururican* (2), *zergatican* (9), *itzalican* (12). *Baizican* dago ia beti –behin baino ez *baizic* (10)– baina gainerakoan pleonasma gabeen nagusitasuna erabatekoa da.

<sup>33</sup> Iñaki Caminok azaldu duenez, xedezko *subj.* + *-(a)gatic* egitura hau aski dokumentatua dago ekialdean eta hego-nafarrera zaharrean ezaguna zen (2003a: 446). Baztango XVIII. mendeko idazkiek ere hainbat adibide utzi digute, Caminok aipatu bezala 1750eko agirian erabili zelarik; testu hartan ez ezik, hizpide dugun egile anonimoaren beste predikuetan ere bada *-jarzenzelaric bere soldaduen aitzinean segui zezatengatic* (Pagola 1995a: 245)–, eta hirurogei bat urte beranduagoko Goyenechek badu kidekorik: *casu guti eguindezaguna-gatic temporaleco gaucetaz* (411). Baztandik hurbil, Narbarteko Lacoizqueta apaizaren idazkietakoa dugu honako beste hau: *zuec obequi entendidezazuengatic valiatuco naiz, munduco Erreinu hetaric batian guertatuzen casu batez* (Ondarra 1994: 353).

Hasierako letra xehea edo larria den ziur erabakitzerik ez dugu izan behin baino gehiagotan, eta egilearen irizpidea ez zaigu beti argia iruditu. Hori dela eta, egungo araudiari begira letra larria behar deneko egoeretan maiuskula hobetsi dugu beti, eta gainerako kontestuetan egilearen jokabideari ahal bezain hurbiletik jarraitzen saiatu gara. Puntuazioa, tarteka, zuzendu egin da, eta baita galdera zein harridura markak ere, testua ulergarriago eman nahirik. Halaber, latinezko aipuak orraztu ditugu, eta haietan topatutako ustezko akatsen bat zuzendu ere bai.

Lexikoaz aritzean aipatu berri den hiztegi atalean esanguratsu iruditu zaigun hainbat hitz dago bilduta. Atal horretako sarrera batean barra batek banandutako bi aldaera agertzeak, lehendabizikoa bietan sarriena dela adierazten du; aldaera bat bestea bezainbeste agertzen denean, berriz, & ikurraz baliatu gara. Adizkitegian, akatsak akats, forma guztiak aurkeztu nahi izan ditugu.

## 5. AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

- CAMINO, Iñaki, 2003a, "Hego-nafarreraren egituraz", *FLV*, 94, 427-468.  
 –, 2003b, *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- CHOURIO, Michel, 1978 [1788], *Jesu-Christoren imitacionea*, Euskal klasikoak Saila 5, Hordago, Donostia.
- DÍEZ DE ULZURRUN, Pedro, 1960, "El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", *Euskera*, 5, 377-403.
- ECHVERRÍA, Juan Nicolás, 1826, *Cristau-doctrina, Gaspar Astetec erdaraz escriptua; eta orai escuaraz publicatzen duena, cembait gauza aumentaturic, Baztango Vallico Parroco batec, cristau fielen instruccionearen deseyuz*, Gadearen Imprentan, Iruñean.
- IBARRA, Orreaga, 1992, "Utzameraz idatzitako bi dotrinaren edizioa eta azterketa", *ASJU*, XXVI-3, 915-976.  
 –, 1995, *Utzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.  
 –, 1997, "Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina", *FLV*, 75, 265-282.  
 –, 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- ONDARRA, Frantzisko, 1981, "Primer sermón en vascuence navarro (1729)", *FLV*, 38, 147-173.  
 –, 1982, "Textos en vascuence navarro de Baztan, Nuin y Urdazubi", *FLV*, 40, 387-401.  
 –, 1989, "Nafarroako Bertizaranan aurkitutako euskal testuak", *ASJU*, XXIII-3, 701-755.  
 –, 1994, "Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-en euskal testuak", *FLV*, 66, 349-369.
- PAGOLA, Rosa Miren, 1995, "Beriainen dotrina", *Enseiucarrean*, 11, 15-69.
- PAGOLA, Rosa Miren & alii, 1994, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Lapurtera-2*, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.  
 –, 1995a, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko goi-nafarrera-1*, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo (75-469 orr. bereziki).  
 –, 1995b, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko goi-nafarrera-2*, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo (473-502 eta 513-542. orr. bereziki).  
 –, 1996, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Hegoaldeko goi-nafarrera-3*, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntzen Institutua, Bilbo.
- SALABURU, Pello, 1984a, *Hizkuntzaren soinu egitura. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia (I)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.  
 –, 1984b, *Arau fonologikoak. Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: Fonetika eta Fonologia (II)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.  
 –, 1986, "Baztango euskalkiaz: Elizondoko doktrina bat", *ASJU*, XX-3, 817-844.  
 –, 1987, "Baztango euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat", *ASJU*, XXI-2, 453-473.  
 –, 1996, "Baztango hizkeraz hitz pare bat", in IZETA, M., *Baztango hiztegia*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 15-22.
- ZELAIETA, Edu, 2004, "Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (i)", *FLV*, 96, 223-248.
- ZUAZO, Koldo, 1998, "Nafarroako euskal hizkerak", in I. CAMINO (arg.), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo, 1-22.  
 –, 2003, *Euskalkiak, herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

## 6. TESTUA

*Joannes in vinculis*

Bi gauza emanten (sic) dazcu aditzera n<ere> cristauac egungo Evangelio Sainduac, levizicoa San Juan Bautistaren prision edo gateac, <bigar>rena San Juan Bautistac Chr[is]to gu<r>e Jaunari<sup>34</sup> eg[in]. zion pregunta edo galdeeguitea<sup>35</sup>, izanzenbada <Sa>n Juan Bautista aprisionatu etagarzela para<tua> Herodes Antiparen mezu edo ordenez, e<t>a zer causa edo motivo izanzen San Juan Bautista garzela sarceco? Etzen berze causa edo motiburic<sup>36</sup> izan, baizican desonesqueriaco edo lizuinqueria becatuaren corregitzea, zegunbada<sup>37</sup> Herodes Antipaa amanebatu edo enamoraturic bere Anaya Philiporen Andrearequin, eta garaituric bere amorio torpeac, equenduzion bere apetitu edo pasionedesordenatueri gustoeguiteco, cosentizenzuelaric (sic) Andreunec berac; San Juan Bautistac repreenditcen eta meachazenzuen vizetze (sic) modu triste eta lastimagarriau vere predicu Saindu eta consellu aundi<e>quin, deseyu aundiarequin itzulzeco edo combertitzeco Jangoicoaren graciara becatari<sup>38</sup> miserableoc, [2] eta veldurturican Andreau convenci edo garaizezaten Herodes San Juanen arrazoiñ aundiec, eta viali etzezangatic vere senarraren-gana, soverviazveteric manatzuzen<sup>39</sup> sarzezala garzela eta parazezala<sup>40</sup> gate edo burdinequin, ala erratendacuta San Marcos eta San Matheo Evangelistac, zagoelaric bada garcelan motivo ain injustounengatic aituzituen andic bere-tic Ch[ris]to gure Jaunac eguitenzituen milagro eta maravillac, eta vializituen bere discipulo<t>aric bida, Iaquinezatela, eta galdeeguinzezatela ea urazen ala ez etorribearzuena munduaren erremediatzera eta salvatzera, edo esperatzen zuten berze erremediatzale zembait. *Tu es qui venturus es, an alium spectamus?* Eguiazqui nere<sup>41</sup> Christaubac pregunta edo<sup>42</sup> galde eguiteau izanzen misteriosa, zergatic San Juan balinbazen Propheta, eta Propheta baiño gueyago C[h]ris]to gure Jaunac erranzuenbezala<sup>43</sup> San Juanec batayatu bazuen Xto gure Jauna, eta erranzuzen untaz unan duzue Xangoycoaren Vildotsa, unanduzue munduco becatuaren mancha eta errestoan [3] equenzalea, *ecce Agnus Dei, ecce qui tollit peccata mundi*, zergatic vializituen vere discipuloac Yaquiter ea urazen ala ez Mesias prometitua, ezagutz<e>n ezbailu bezala, edo ignorantebat bailiz bezala? Ala dudatzen du San Gregorio aundiatic, baiñan errespuesta edo satisfaccionea ematendacuta duda untara San Geronimoc<sup>44</sup>, San Chrisostomoc, eta San Y<l>arioc, zeñec baitiote etzuela San Juanec dudatu baizican bere discipuloec, hoc nola maitebait<zu>ten beren Maistru Divinoa ainberze, embidizenziren Xto. gure Jaunac zuen famac bere

<sup>34</sup> Eskuizkribuan “*Jauniri*”.

<sup>35</sup> Azken -e- lerro artean txertatua dagoelarik.

<sup>36</sup> Eskuizkribuan “*motiburin*”.

<sup>37</sup> “*zegun*”-idatzi arren, aurreraxeago “*zagoelaric*” (2) eta “*baizagon*” (3) daude, eta tankera horretakoak dira egile berekotzat jo ditugun beste predikuetako ordainak ere. Akatsa ematen du, beraz.

<sup>38</sup> -ta- lerro artean gehitua.

<sup>39</sup> Azken -u- beranduago lerro artean gaineratua.

<sup>40</sup> Originalean “*parazeza*”, erratuz ziur asko.

<sup>41</sup> Eskuizkribuan “*ne*” besterik ez da irakurtzen. Akatsa dirudi.

<sup>42</sup> Originalean “*eda*”.

<sup>43</sup> Eskuizkribuan “*erranzuenbela*”. Behin baino gehiagotan ageri da *bezala* hitza osorik idatzi gabe: “*aitaamoriosoac beza*” (12), “*embaxodore* (sic) *bat beza*” (13) (ik. 74. oharra).

<sup>44</sup> Originalean “*San Geronimo*”, ergatibo marka ahaztuta (ik. 84. oharra).

m<ila>groen medioz<sup>45</sup>, zergatic iduri<tz>en baitzizaien<sup>46</sup> galdubearzuela zerbait orrengatic vere hohor (...) <esti>macione<sup>47</sup> Mastru Divino unec, eta au nola baizagon deseyu aundiarequin libratz<ec>o bere discipuloac embidia untaric, eta ateratzeco ignorancia artaric, vializituen Ye<su>Xrengana zerengatic icustenzituztelaric<sup>48</sup> beren Veguiez unec eguitenzituen milagroac, gueldi<zi>tezin Sendatuac beren gogortasun artaric [4] eta sinetzezategatic urazela Mesias prometitua<sup>49</sup>. *Ideo misit illos ad Xum, ut videntes eius miracula sanarentur in Spiritu*. Eta deteniazten zituelaric apur bat eguintzuen auniz milagro oquen aizinean San Lucasec dion ara<u>era, zeñec baitio Sendatuzituela orduartan berean auniz beren eritasun<sup>50</sup> eta llagetaric eta eguintzuela auniz milagro, eta hoc eguin eta ondoan despeditzentu Xto gureyaunac enc<a>rgatzendabelaric errateco beren Mastru divinoai icusi eta aitudutenguzia, auda i<c>usituztela berengueiz<sup>51</sup> lenago itsuac zirenac vistarequinzaudela, mainguac ya sana<t>u edo sendaturic, ilac pizturic, lepraz beteric zaudenac<sup>52</sup> yagarbituric, eta finean erraten<du> Xto gure Jaunac Bienaventuratuadela aren baitan escandalizatzen<sup>53</sup> ezdena, auda sinestend<ue>na uradela Mesias prometitua, eta escandalizatzen ezdena icustenduenean ilzen erio<tze>afrentoso batean ainberzeongui<sup>54</sup> Hebriei [5] eguinta ondoan. Emen consideratu beardugu (...)a<sup>55</sup> nola San Juanec v<i>alibaizion mandatua Xto gure Jaunari baiñan disimulatzenzuelaric bere discipuloen Sinestegaistoa alquet<u>ric gueldietzitezingatic, guisaberean Xto gure Jaunac comprenditu baitzuen San Joanen intencionea erresponduzioz uni prudencia aundia<re>quin<sup>56</sup> itzez, et<a> unen discipuloen dudari milagroequin<sup>57</sup> zeñequin Sendatubaitzuen oquen Si<n>este gaistoa. *Sicut Joanes cavens discipulorum confusionem, interrogavit in persona S<ua, i>ta Xtus civilitate utens eadem ratione respondit, verbis quidem Joanni, sed Factis miraculorum discipulis*. Auda egungo Evangelio sainduac erratendacuna. Aitzinat seguiz<eco> escadiozogun<sup>58</sup> Espiritu Divino uni comunicadiezadan bere gracia sainduartaric, parat<ze>ndiogularic untaracoz medianera Maria S[anti]S[i]ma, eta erratendiogularic bioz guzitic Ave Maria.

[6] Aunitzec ustedute aurquizendirenean trabaxu edo miseria zembaiten artean bigalzendartzela Iangoicoac oquen galarazteco eta desesperazteco, berriaz ere diot & baiñan enganaturic daude zergatic aundia izanican ere gure flaqueza eta miseria beti beardugu<sup>59</sup> confiatu langoycoaren borondate saindua baitan, eta sinestsi ezduela beinere p<er>mitizen izangaiten aflightu eta atormentatuac gure indarrec dezaqueten baño gueiogo, beti negurzentuela trabaxu eta persecucioneac gure indarrequin, issurzentuela bere castiguac fa-

<sup>45</sup> Ez dugu ezagutzen *embiditu* aditzaren horrelako beste erabilerarik; baliteke “*famac*” ordez “*famaz*” behar izatea.

<sup>46</sup> Originalean “*baitzizai*” besterik ez, lerro amaieran hitza amaitu gabe utzirik.

<sup>47</sup> Aurreko testu zatia erabat galduta egon arren, agian “*estimacionea*” beharko lukeela ematen du.

<sup>48</sup> Eskuizkribuan “*icustenzituztelari*”.

<sup>49</sup> Originalean “*prometia*” antzematen da, erratuz ziur asko, gainerako aipamenetan “*prometitua*” idatzi baitu.

<sup>50</sup> Eskuizkribuan “*eritasum*”, oker.

<sup>51</sup> Lerro batzuk gorago agertutako “*beren Veguiez*” sintagmaren laburdura ematen du.

<sup>52</sup> Originalean “*leprazbeteizaudenac*”.

<sup>53</sup> Eskuizkribuan “*escandizaten*”.

<sup>54</sup> “*ainberg-*” idatzen hasi eta gero -z- gainean idatzia.

<sup>55</sup> Baliteke ulertzen ez den zatian “*nola*” hitza egotea, errepikaturik.

<sup>56</sup> Azken bi hitzak lerro artean txertatuta daude.

<sup>57</sup> Aurretik “*obra*” dago, zirriborratuta.

<sup>58</sup> Eskuizkribuan oker idatzirik: “*diozugun*”.

<sup>59</sup> -du- lerro artean txertatuta dago.

vore edo graciaren araubera, castigazengaitu Aita amoriosoac bezala, eta ez Juez rigurosoac bezala, ez gure galarazteagatic, baizican purificatu eta garvi-zeagatic gueren becatuetaic, berac lagunzendacu ematendazcun trabaxuen erematen, colpatzengaituen escuarequin beraiquin sostenitzengaitu, [7] llaga eguitenduen Varan berean issurzendu balsamua, eta Olioa zeinequin uzten-  
du sendatua, ezagutzendu noraño allegatzenden gure flaqueza; eta nola ez-  
baitu nai desperdiciadadien gure persecucioneen dembora au, baizican apro-  
vechadadien, badaqui noraño allabatubearduen aren escu sainduac, ezda-  
diengatic gutitu gure merecimendua direlaric<sup>60</sup> sobera ligeroac padecitzentu-  
gun penac, eta berzealde galezdezagungatic choilqui merecimenduau, direla-  
ric trabaxuoc sofri detzaquegun baño aundiagocoac. Zer berze fin izandeza-  
que bada betezez gure Vizitza trabaxu eta persecucioneez? Iduritzenzaizue  
dela Yangoicobat cruela alegratzendena choilqui gure miseria eta desdichae-  
tan? Usteduzue dela Iaunbat imbidioso, ez dela ichiquitzen dichosotaco par-  
tizipatzendutenean<sup>61</sup> dichaotaric [8] bere esclavoec? Usteduzue bigalzendaz-  
cula trabaxuoc uni dicha gueyago emateagatic? Ez<sup>62</sup> nere Fielac, gure gatic  
castigatzengaitu: unen amorioac (errateco moduan) sufrizentu parte gure tra-  
baxuac, baiñan nola baita ain justua unen amorio saindua, utzinaigaitu pa-  
decitcera, zergatic advertizendu<sup>63</sup> acaba baletza trabaxuoc berraletzaquela gu-  
re miseriac: da Medicubat beratcha San Agustinec dion bezala, zein naiz urri-  
calduycanere<sup>64</sup> bere Eriain nigarrez, alarican ere ebaquitzen du llagan corrup-  
tuturic aurquitzen duen guzia, zembatenaz cruelago manifestazenden orduan  
gueyago maitatzengaitu egungo Evangelioac aditzera ematendacun bezala;  
nor izanzenbada langoycoaren maiteagoric San Juan Bautista baiño, eta ala-  
rican ere permitituzen [9] izanzadien ain perseguitua parazenzutelaric gar-  
zela eta prisione etan ainberze falso testimonio irauqui eta ondoan, zergatican  
artaraño gauza guziac guertatu baizizaizcon ongui, hohoraten, alabatzen, eta  
obedezitzenzutelaric guciec, eta precisozen pasazezan<sup>65</sup> propheta sainduac pa-  
decituzituzten<sup>66</sup> trabaxu eta persecucioneac, eta langoycoaren Escogituec pa-  
decitubeartuztenac zergatic ala nola manifestatu baitzituen bere virtute aund-  
diac fortunaetan, guisa berean manifestazezangatic trabaxu eta persecucione-  
etan, eta oquin berrazezan bere gloria saindua. Baiñan usteco dute zembaitec  
San Joanec padecituzituela borchaz, ez por cierto, aituzuean preso artu be-  
arzutela etzen escapatu, ez eta ere gordetu munducoec eguitendutenbezala,  
[10] baizican bera aterazitzayen bidera Soldaduey, ofrecizenzelaric<sup>67</sup> prisione  
eta gateetara, eta icusizuean bere burua gateez inguraturic gloriatzenzen be-  
re equin San Pablo eguitenzen bezala, alegratzenzelaric lagunzenziotela bere  
araguiaren mortificatzen zergatic ainberze aborrecitzen baizuen. Beraz Esti-  
macio aundia eguinbeardugu<sup>68</sup> trabaxu eta persecucioneez zein naiz mun-  
duari idurituican ere direla langoycoaren castiguac, unen viguien<sup>69</sup> aizinean

<sup>60</sup> Azken hitz hau, lerro artean txertatua.

<sup>61</sup> Eskuizkribuan “partipatzen-”, erratuz. Ondoren, “unen” hitza dago, zirriborratua.

<sup>62</sup> Ondoren “por cierto” zirriboraturik.

<sup>63</sup> Originalean “advertizendu”, <r> gabe.

<sup>64</sup> Hasieran “compadecituycanere” idatzita eta gero zirriborratuta. “urricalduycanere” gainean idatzi du.

<sup>65</sup> “pasazezan” gainean idatzirik dago, lerro artean. Testuingurua kontuan izanik aditz forma plu-  
rala beharko litzatekeela ematen du; beste horrenbeste esan daiteke apur bat beheragoko *manifestaze-  
zangatic* dela eta.

<sup>66</sup> Azken silaba ahaztu du egileak lerroz aldatzean: “padecituzituz” dago idatzirik.

<sup>67</sup> Lehenik eta behin “ofrecizen zuelaric bere burua” idatzi eta berandugo aldatua.

<sup>68</sup> Originalean “eguinbeardugo”.

<sup>69</sup> Adibide hau alde batera utzita, gainerakoetan *Veguez* (3) edo *beguien* (16) dauzkagu.

ezdira baizic unen gracia edo favoreac zeñequin premiatzenbaititu bere Es-coxituac corregizentuelaric beren faltaetaric, guardazentuelaric berze zembaitetaric, eta berratzendabelaric oquin beren premia edo merecimentua. Zergatic quexatzenzara bada becataria aurquizenzarenean [11] trabaxuezembaiten artean? Errandiezadazu, becatu mortalean zaude? Erranbeza zure conciencia maldadez cargatu orrec, erran beza zure biotzean conservaturic daucazun rencor disimulatu orrec, erran beza zure codicia orrec, zeñequin baitaucazu itzuli gaventanic lagun proximoari ebatsi diozuna: erran bezate zure desonesqueriaco iz, pensamentu eta obra torpeoriec, zeñec daucate itsusturic zure arima, eta corrompituric zure gorpuz miserablea, bada Apostoluac erratendacu desonestoac becatu eguitenduela, ofendizenduelaric bere gorpuzeraño; *in corpus suum peccat*. Bada ofenditu balinbaduzu Iangoicoa, eta balinba-zaude ofendizen orai berean, zer misterio da Iangoycoac vigaldiezazun trabaxu, desgracia eta pobre [12] zembait zere ontasunetan? Mereci baituzu infernu eternidade guzibateco<sup>70</sup> penac, zer agravio eguitendazue<sup>71</sup> Yangoycoac, vigalzeaz trabaxu zembait mundu untara, ez baitira eternidade artaco den trabaxuric charrenain itzalican ere? Ay nere auditorio maitea, zein itsuturic dau den becatari, zergatic bere maliciac itsutu baititu Spiritu Sainduac dion bezala. *Excæcavit eos malitia eorum*, eta nola baitaude ain itsuac beren pasione etan ezdute icusten, ez eta ere ezagutzen beren becatuen gravedadea, eta otaz<sup>72</sup> merecizentuzten penac, eta orren gatic ezdira beldurzen Eternidadeguzico castiguaz, zeñequin meatchazen baititu Juez divinoac: ezdute<sup>73</sup> errecivitzen pacienciareq[ui]<sup>n</sup>. Iangoyco aitaamoriosoac bezala<sup>74</sup> vigalzentuen trabaxuac oquen corregitzeco [13] eta emendatzeco. Edequizizu bada becataria veguiac, vigaldiozozu Xto gurelaunari embaxodore (sic) bat bezala zure entendimentu itsu ori, arguidiezazungatic bere gracia sainduarequin, ezaguzeco zembait castigu mereciduzun zure becatuez; guisa ortan zure vorondateac errecivitu-cotupaciencia aundiarequin Iangoycoac misericordiosoqui vigalzentuen trabaxuac mundu untara; eta diot misericordiosoqui San Agustinequin batean zeñec baitio, goraiñic Iangoicoac mundu untan becataria castigazenduen Varran ere arguitzenduela aren misericordiac. Bai nere Christaubac, eztu galazi eta desesperazi nai becatariac persecucione oquin, baizican corregitu eta emenda azi beren becatuetaric aterazentuelaric beren sineste gaisto artaic, eta eguitentuelaric prudente [14] eta Iaquinsunac. Correctioneac eta Varac ematendu Iaquintasuna, Salomonec dion bezala: *Virga et correctio tribuit Sapientiam*. Sinetzazue fielac, etzaitzela Enossentac izan, iduquiazue paciencia; guisa ortan aprovechatuco zaizue edozein castigu eta correccione; baiñan ignorantebatec naiz icusirican ere bere burua edozein trabaxu edo miserien artean eztu ateraco otaic provechuric edo fruituric, Yaquinsunac bere Proverviotan<sup>75</sup> dion bezala: *Plus proficit correctio apud prudentem, quam centum plaga apud Stultum*. Cergaticezbaitu ezagutzen Iangoycoac vigalzentziola bere becatuen corregitzeco; ezagutdezagun bada padecitzentugun trabaxu guziac di-rela gure becatuen gatic, eta Yangoycoac vigalzendazcula sufrizeco pacienciarequin. Nola usteduzu bada [15] portazendela Yangoycoa becatariarequin be-

<sup>70</sup> "guzibate" ageri da eskuizkribuan, gure ustez leku-genitibo marka falta duelarik.

<sup>71</sup> Zu baztertu eta *zuek* pertsonari hasi zaio zuzentzen. Ez da aldaketa kasu bakarra (ik. 85. oharra).

<sup>72</sup> Originalean "otoz".

<sup>73</sup> Testuinguruari begira aditz forma plurala espero zitekeen.

<sup>74</sup> Eskuizkribuan "beza". Gauza bera bi lerro beherago (ik. 43. oharra).

<sup>75</sup> Forma mugatua espero zitekeen. 'Becatari' hitza ere, pare bat alditan, ageriko arrazoirik gabe mugagabeen erabilia dago testuan zehar: *becataric* (12), *becatarierequin* (16).

regana itzul azteco edo combertizeco? Unec eguitendu Arranzari diestro batec eguitenduena arraiñ aundi baten arrapatzeo Ecclesiasticoac aditzera ematendacun bezala: *sicut pisces capiuntur hamo, sic homines capiuntur in tempore malo, hoc est in tempore peccatorum*. Icusicoduzue Arranzale diestro batec botazenduenean Amua orratza eta zeboarequin, sentizenduenean picatzen arraiñ aundi bat ezduela bereala ateratzen indarca uretic escapa ezdaquiongatic ongui iretsi faltan orraz ura bere zeboarequin, baizican uztenduella lasso necadadien urean irestendularic ongui orraz ura, eta iduritzenzayonean necatudela ya, eta iretsi duela orraz ura, urduan (sic) erressqui ateratzendu ur passterrera, eta erematendu echeat gusto aundiarequin. Ala eguitendubada [16] Yangoycoac becatariarequin naiduenean arranzatu eta ateratu bere becatuetaric, botazendu bere beldurtasun sainduaren orratza, parazendiolaric beguien<sup>76</sup> aizinean bere Justicia rigurosoa eta infernuetaco penac gaistoendaco, zeruco gloriaren zeboarequin, zeñequin combidatzenbaitu maitazen eta servizazendioten guziac: castiguaren orrat<sup>77</sup> eta zebo unequin naitu Yangoycoac arranzatu becatariac eta ateraazi beren bizioetaric<sup>78</sup>. Bayñan usteduzue logratzenduela bereala au? Ez por cierto, cergatic becatariac eguitendu ureco gau<sup>a</sup>.<sup>79</sup> etaarrañac eguitenduena, hoc icustendutenean zeboa ezdute bereala iretsten, picatuycan ere: orrengatic Arranzaleac uztendu tiratu gabentanic Amua iretsdezangatic pocadu ura, eta atrebesadaquion (sic) gatic ongui. Ala eguitendu [17] Yangoycoac becatariarequin, hoc icustendute<sup>80</sup> fedearrequinzeruco eta infernuco orratza eta zeboa baiñan ezdute bereala iresten, zergatic ezbaitute ongui consideratzen, baizican depaso, picatzendute bein edo berze porogatzeco bezala, urecoec eguitendutenbezala<sup>81</sup>. Zereguitendu bada Yangoycoac? Botazentu goatzebatean, parazentu trabaxu eta persecucione zembaiten artean, cergatic aurquizendirelaric trabaxu eta persecucioneoquin afligituric ureco arranza bezala sentidezatengueyago eta gueyago Yangoycoaren beldurtasun<sup>82</sup> Saindua, ezagutu dezatengatic beren estado tristea eta untaz merecizen tuzten penac, eta guisa untan daduzcalaric<sup>83</sup> necatu eta errendituric, beren eritasun eta trabaxuequin [18] atrabesaturic ya orratza, aterazentu beren becatuen uretic, eguiazco penitencia batera eremateguero (sic) bere gloria sainduara. O eta sines bagueneza becatarioc guertazenzaizcun trabaxu eta persecucione oc dudaric gabentanic direla gure becatuen gatic, San Geronimoc<sup>84</sup> claroqui erratendacunbezala: *Quidquid mali sustinemus nostris peccatis accidere manifestum est*. O eta zein fruitu aundia ateraguenezazuquen otaric! Zein paciencia aundiarequin sufriguenetzaquen! Zein humildade aundiarequin Emanguniotzoquen esquerrac Yangoycoari! Baiñan nola ezbaytugu sinestsi nai ongui eguiacu orrengatic gaude ain indigesto becatariac gueren trabaxuetan, orrengatic inquietazen dira<sup>85</sup>: orrengatic assaltazendira juramentazen eta maldizitzendutelaric; [19] orrengatic<sup>86</sup> galzen dute trabaxuotaric aterabearzuten premioa, galzendute paciencian aurquitu bearzuten alivioa, eta finean condena-

<sup>76</sup> Lehenengo silabaren ondoren “re” idatzi eta ondoren zirriboratu duela ematen du.

<sup>77</sup> Akatsa da noski; beste kasu batzuetan idazleak izandako jokabideari begira *ornaz* beharko luke.

<sup>78</sup> Aurretik “*becatuetaric*” idatzi eta ondoren gainean idatziz zuzendua.

<sup>79</sup> *Gauza* ote? Ondorengo “*eta*” hori, bestalde, lerro ertzean behartuta sartu zuen beranduago.

<sup>80</sup> Hasiera batean “*icustendutenean*” idatzi du, eta gero menderagailua zirriboratu.

<sup>81</sup> Originalean “*eguitendutendutenbezala*”.

<sup>82</sup> Hasiera batean “*beldurtasuna*” idatzi eta ondoren mugatzailea ezabatu duela ematen du.

<sup>83</sup> Lehenik eta behin “*laudelaric*” idatzi, eta beranduago aldatua, “*duzca*” lerro artean txertatuz.

<sup>84</sup> Berrero ere ergatibo marka ahaztu du originalean, “*Geronimo*” idatziz (ik. 44. oharra).

<sup>85</sup> Pluraleko 1. pertsona baztertu eta 3.az baliatu da hemendik aurrera bekatarietz aritzeko (ik. 71. oharra).

<sup>86</sup> Originalean “*orren*” besterik ez, motibatibo marka ahaztuta.

zentuzte beren arima gaissoac Herodesec bezala, zein mundu untan arrez betteric<sup>87</sup> egon eta ondoan condenatua izanzen seculaco penetara. Sinetzazue bada becatariac Eguiacu San Gregorio aundi ac ematendacun doctinarequin zeñec baitio Yangoycoac mundu untara vigalzendazcun trabaxuac zervitzazenzaizcula<sup>88</sup> edo corregitzeco eta purgazeco gure becatuac mundu untan, edo di-rela eternidade artaco penen aste edo principioa. *Omnis divina afflictio aut purgatio est vite presentis aut initium pena sequentis*. Eabada, San Juan Bautista bezala trabaxueta miserien<sup>89</sup> [20] prisionetan aurquizenzaren arima<sup>90</sup>, vigaldiozozu Xto gure Jaunari unen bi Discipuloac, zein baitira entendimentua eta<sup>91</sup> vorondatea, Yaquindezaten ea ura den ala ez Mesias prometitua vigalia ya munduaren Salvazera, ea ura den<sup>92</sup> padezitu bearduena Pasione eta Eriotze bortiza gure erremediatzea gatic. Baiñan nora noaye ni sinestenbadu au Christino fiel guziac<sup>93</sup>? Guzioc sinestendugu aladela Mesiasen etorzea, padecituzuela, eta ilzela gure salvatzeagatic, eta Exemplu emateagatic? Sinesten badugu, eta ezaguzenbadugu nola ezdiogu imitazen? Nola ezdugu seguitzen ematendacun Exemplua bere trabaxuequin erematentuelaric paciencia aundiarequin? Naidugu gozatu eternidade guzico gloria padecitu gave mundu untan? [21] Benturan izanbeardu condicione obetaco Discipuloac Mastruac baiño? Soldaduac Capitanac baiño? Bada gure Capitanac eta Mastruac ezbalinbazen sartu zeruan, berea zuelaric, padecitu gaventanic ainberze trabaxu, burla eta persecucione: nola pretendizendugu guc an sarzea, gurea ezdelaric, padecitu gabentanic trabaxuac! Goraiñic<sup>94</sup> padecituican ere eguiten bazaicu auniz merchede zeruau Emateaz, nola pretendizendugu Justiciac padecitu gave? O! Munducoen eraqueria, zeñec itsuturic<sup>95</sup> munduco gusto eta plazeren artean, loturic daucataric beren arima gaissoa beren becatu izigarrien gateequin, pretendizen baitute confianza bano batequin alcanzazea Zeruco gloria. Obra onic eguingabentanic nai izatea ceruco gloria [22] ezda conciencia onetaco christauea, baizican gaisstoena, *non recti, sed perversi est animi ante querere gloriam, quam Exercere virtutem*. Tratadezagun bada ezagutzeaz Xto gure Jauna gure Mastrutaco, ez ainberze<sup>96</sup> Eguinzituen milagroac San Juanen Discipuloec sinesteagatic, nola emanzacun<sup>97</sup> Doctrina sainduaz bere trabaxuen artean, sufrizentugularic<sup>98</sup> paciencia aundiarequin. Tratadezagun bada ez solamente ezagutzeaz, baizican imitazeaz eta Seguietzeaz unen paciencia, humildade eta berezgaifneraco virtuteac. Ycaszazue nere ganic (erratendacu berac) ez munduaren fabricazen, ez milagro eta maravillen Eguiten, nic San Joanen Discipuloen aizinean eguinuembezala, baizican izaten obediente eta humilac: *discite a me quia mitis sum, et humilis* [23] corde. Eta idurizenbazaizue ezdela erress imitazea Xto gure Jauna cergatic baita izatebat choil perfecta, Excelentea eta Divinoa, imitazazue San Juan Bautista, zein ezbaizen Yangoycoa, baizican choilqui guizona gubezala, baiñan ainSaindua, ain inozente eta Exem-

<sup>87</sup> “beterin” eskuizkribuan.

<sup>88</sup> Ondoren ulertzen ez den zerbait idatzi eta zirriboratu du, “edo” zirriborroaren gainean doalarik.

<sup>89</sup> Ondorengo hitza zirriboraturik dago hemen ere, eta ez da ulertzen. “prisionetan” gainean idatzi du.

<sup>90</sup> Hitz hau lerro artean txertatu zuen idazleak.

<sup>91</sup> Eskuizkribuan “et”.

<sup>92</sup> Eskuizkribuan “de”.

<sup>93</sup> Eskuizkribuan “guziaz”. Akatsa dirudi.

<sup>94</sup> Azken silaba beranduago lerro artean sartua dago.

<sup>95</sup> -tu-, lerro artean txertaturik.

<sup>96</sup> Ondorengo hitza zirrimarratu zuen eta ez da ongi ulertzen.

<sup>97</sup> “nola emanzacun” bi aldiz idatzita dago originalean.

<sup>98</sup> Eskuizkribuan “sufrizentugularia”.

plareauditacoa, zein etan aurquituezbaizen culpa eta becatuic, bada izanzen Santificatua bere amaren Savelean; seguizue unen Virtute aundiatic, imitazazue unen Erretiroa, apartazenzatellaric compania gaisto guzietaric, mancha etzaitzten munduco becatueq[ui]<sup>n</sup>. Siguizazue (sic) unen penitencia sufrirentuzuelaric paciencia aundiarequin trabaxu eta persecucioneac, despreciazue zuen naturaleza delicatue orrec allegatzentuen<sup>99</sup> pretestoac escusatzeagatic mortificacioneetaric: finean imitazizue San Juan Bautistaren [24] virtute guziac, cumplimentuzuelaric fielqui batayo Sainduan errecivitu zintuzuen obligacioneequin<sup>100</sup>, guardatzentuzuelaric Evangelio Sainduco legueac. Guisa untan izanenzate testigu fielbatzuec Xt[o]ren aizinean, eta unec Emanendu Zuetaz testimonio gozo<s>obat, zein baita Eternidade guzico gloria Amen.

## 7. HIZTEGIA

- AINBERZE 'hainbeste': *ainberze*ongui Hebriei eguinta ondoan (4).  
 AIZIN / AITZIN 'aurre': eguinzituen auniz milagro oquen *aizinean* (4); *Aitzinat* seguizeco (5).  
 ALARICAN ERE 'hala ere': *alarican ere* permitituzuen izanzadien ain perseguitua (8).  
 ALLEGATU & ALLABATU 'iritsi': ezagutzendu noraño *allegatzenden* (7); badaqui noraño *allabatu*bearduen (7)<sup>101</sup>.  
 ALQUETU 'lotsatu': *alqueturic* gueldietzitezingatic (5).  
 AMORIO 'maitasun': garaituric bere *amorio* torpeac (1); unen *amorioac* (8).  
 AR 'ezinegon': mundu untan *arrez* beteric egon eta ondoan condenatua izanzen (19).  
 ARRANZALE / ARRANZARI 'arrantzale': *Arranzale* diestro batec botazenduenean Amua (15); *Arranzari* diestro batec eguitenduena (15).  
 ARRAZOIN 'arrazoi': San Juanen *arrazoin* aundiec (2).  
 ASSALTATU 'asaldatu': orrengatic *assaltazendira* juramentazen eta maldizitzendutellaric (18).  
 ATERA / ATERATU 'irten(arazi)': *aterazitzayen* bidera Soldaduey (10); naiduenean arranzatu eta *ateratu* bere becatuetaric (16).  
 AUNIZ / AUNITZ 'asko': eguinzituen *auniz* milagro (4); *Aunitzec* ustedute (6).  
 AURQUITU 'topatu': *aurquizendirenean* trabaxu edo miseria zembaiten artean (6).  
 BEINERE EZ 'inoiz ez': *ezduela beinere* permitizen (6).  
 BELDURTASUN 'beldur': bere *beldurtasun* sainduaren orratza (16).  
 BENTURAN 'ausaz, menturaz': *Benturan* izanbeardu condicione obetaco Discipuloac Mairuac baiño? (21).  
 BERATCH 'errukior, sentibera': da Medicubat *beratcha* (8).  
 BERRATU 'handitu, areagotu': *berrazezan* bere gloria saindua (9).  
 BERZE 'beste': edo esperatzen zuten *berze* erremediatzale zembait (2).  
 BIDA 'bi': vializituen bere discipuloetaric *bida* (2).  
 BORCHAZ 'indarrez': usteco dute zembaiten San Joanec padecituzituela *borchaz* (9).  
 BORTIZ 'gogor': padezitu bearduena Pasione eta Eriotze *bortiza* (20).  
 CHAR 'txiki, txiker, kaskar': ez baitira eternidade artaco den trabaxuric *charrenain* itzalican ere (12).  
 CHOIL 'guztiz': izatebat *choil* perfecta (23)<sup>102</sup>.  
 CHOILQUI 'guztiz': galezdezagungatic *choilqui* merecimenduau (7); 'bakarrik': ezbaizen Yan-goycoa, baizican *choilqui* guizona gubezala (23)<sup>103</sup>.  
 CHRISTINO 'kristau': *Christino* fiel guziac (20)<sup>104</sup>.  
 COLPATU 'astindu, jo': *colpatzengaituen* escuarequin (6).  
 DESEYU 'desio, desira': nola baizagon *deseyu* aundiarequin (3).

<sup>99</sup> Jarraian zirriborratutako hitz bat dago; "escusac" izan daitekeela antzematen da.

<sup>100</sup> Testuinguruak absolutibo plurala eskatzen duela ematen du, eta ez soziatiboa.

<sup>101</sup> Egile beraren gainerako testuetan *allagatu* da formarik erabiliena.

<sup>102</sup> Esku honek berak (*s*)*soil* idatzi zuen NAO n bildutako predikuetan.

<sup>103</sup> Beste predikuetan (*s*)*soilqui* dago (ik. 5. oharra).

<sup>104</sup> Behin bakarrik erabili zuen forma hori idazleak; gainerakoetan *christau* dago beti.

- DETENIAZI 'geldiarazi': Eta *deteniazten* zituelaric apur bat eguintzuen auniz milagro (4).  
 EBAQUI 'moztu': *ebaquitzen*du lagan corrompitoric aurquitzen duen guzia (8).  
 EBATSI 'lapurtu': lagan proximoari *ebatsi* diozuna (11).  
 EDEQUI 'ireki': *Edequizizu* bada becataria veguiac (13).  
 EGUN 'gaur': *egungo* Evangelio Sainduac (1)<sup>105</sup>.  
 EQUENDU 'kendu': enamoraturic bere Anaya Philiporen Andrearequin, eta garaturic bere amorio torpeac, *equenduzion* (1); becatuaren mancha eta erretoen *equenzalea* (3).  
 ERAQUERIA 'erokeria': O! Munducoen *eraqueria* (21).  
 EREMAN 'eraman': lagunzendacu ematendacun trabaxuen *erematen* (6).  
 ERI 'gaiso': naiz urricalduyan ere bere *Eriain* nigarrez, alarican ere ebaquitzen du (8).  
 ERRAN 'esan': *Errandiezadazu*, becatu mortalean zaude? (11).  
 ERREMIATZALE 'berrerosle': edo esperatzen zuten berze *erremiatzale* zembait (2).  
 EXEMPLARE 'eredu': ain inozente eta *Exemplare*auditacoa, zeñetan aurquituezbaizen culpa (23).  
 GABENTANIC / GAVENTANIC 'gabe': Arranzaleac uztendu tiratu *gabentanic* (16); itzuli *gaventanic* lagan proximoari (11)<sup>106</sup>.  
 GOATZE 'ohé': Botazentu *goatzebatean* (17).  
 GORAIÑIC 'baita' [*ere*-ren indargarri; gazt. *incluso*]: San Agustinequin batean zeñec baitio, *goraiñic* langoicoac mundu untan becataria castigazenduen Varan ere arguitzenduela aren misericordiac (13); *Goraiñic* padecituican ere eguiten bazaicu auniz merchede zerruau Emateaz (21)<sup>107</sup>.  
 GORDETU 'gordé': ez eta ere *gordetu* munducoec eguitendutenbezala (9).  
 GUZI / GUCI 'guzti': apartazenzatelaric compañia gaisto *guzietaric* (23); obedeztizenzutelaric *guciec* (9).  
 HOHORATU 'ohorea eman': *hohoratzen*, alabatzen, eta obedeztizenzutelaric (9).  
 IAQUINSUN & YAQUINSUN 'jakintsu': eguitentuelaric prudente eta *Iaquinsunac* (14); *Yaquinsunac* bere Proverviotan dion bezala (14).  
 ICHIQUI [+prolatiboa] 'atxiki, hartu, jo': Usteduzue (...) ez dela *ichiquitzen* dichosotaco partizipazendutenean dichaotaric bere esclavoec? (7)<sup>108</sup>.  
 IDUQUI 'eduki': *iduzizazue* paciencia (14).  
 IDURITU 'iruditu': naiz munduari *idurituican* ere direla langoycoaren castiguac (10).  
 IN DARCA 'bortxaka': ezduela bereala ateratzen *indarca* uretic (15).

<sup>105</sup> *Egun* ez omen da gaur Baztanen erabiltzen (Camino 2003b: 98); Izetak ez zuen bere hiztegian aipatu eta EAELerako erantzunetan ere *gaur* bildu zen. Agerpen sarrikoa da hala ere XVIII-XIX. mendetako testuetan (aldian behin *gaur* ere badagoen arren), eta ez *egungo* *Evangelioa* bezalako ohiko esapideetan bakarrik. Echeverriaren eskutik (1829) dator adibidea: *San Anton (...) ceñen gloriac tocetzen zait egun celebratzea* (Pagola 1995a: 286).

<sup>106</sup> Baztanerazko gainerako testuetan ezezaguna da *gabe*- ondorengo sudurkari hori, guk egile berekotzat jo ditugun horietan izan ezik (cf. Pagola: 1995a: 364 eta 366, besteak beste). Echeniquek, esaterako, *gabe* nahiz *gabentanic* erabili zituen.

<sup>107</sup> Egilearen gainerako predikuetan 'oraindik' edo 'baita' balioak ditu hitz honek (cf. *Ea bada guratso gaisstoa, goraiñic baduzu dembora*, Pagola 1995a: 350; *anzi baitziren gauza guciez, goraiñic den precisoenez ere*, 358). Arestian (3.2.4.) esan bezala, ez dugu [g]-dun aldaera hau beste inork erabili izana ezagutzen. 1826ko Echeverriaren doktrinan *orañic* dago: *guziz piadosoac orañic arrotzequin, eta berenac ez direnequin ere* (84); Goyenechek ere *orañic* hautatu zuen, S. Antonio Abataren predikuko pasarte honetan ikus daitekeenez: *orañic etcituen oguei urte eta ya arritcen-cituen guciac* (Pagola 1995a: 395). Echeniquek, bestalde, *oñic* erabili zuen: *tranquilqui egon zaitecila oñic dembora pichca batez* (Pagola 1995a: 185).

<sup>108</sup> Michel Chourio lapurtarraren *Jesu-Christoren Imitacionean* ere bada *ichiqui* prolatiboa lagan duela: *JESU-CHRISTOREN gogaraco içan nabi duenac, iguriqui behar du erroçat itchiquico dela munduaren artean* (1978 [1788]: 74).

<sup>109</sup> Guk dakigula, *iraquui* ez da inguruko beste inongo testutan ageri. Ezagutzen dugun aldaera hurbilena, Bertizaranan azaldu den *erauqui* da (Ondarra 1989: 719), eta ez ditu urrun Olagueko doktrinako *eraqui* (Pagola 1995a: 60) edota Beriainek XVII. mendean idatzitako *erayqui* (Pagola 1995: 28). Hego-nafarreratik atera gabe, *eraquichi* dakar Elkanoko Lizarragak testuinguru berean (Pagola 1996: 1107 eta 1168) eta Urizko doktrinan, aldiz, *echequi* dago (Pagola 1996: 1213); hego-nafarrera ondoko Makirriain herriko doktrinaren egileak *goratu* eta *erachiqui* (Díez de Ulzurrun 1960: 381 eta 397) era-

- IRAUQUI 'eratziki, goratu, egotzi [inoren aurkako testigantza]': parazentularic garzela eta prisioneretan ainberze falso testimonio *irauqui* eta ondoan (9)<sup>109</sup>.
- IRETSI 'irentsi': escapa ezdaquiongatic ongui *iretsi* faltan (15).
- IZIGARRI 'izugarri': beren becatu *izigarrien* gateequin (21).
- LASSO 'lasai': baizican uztenduela *lasso* necadadien urean (15).
- LEVIZICO 'lehenbiziko': *levizicoa* San Juan Bautistaren prision edo gateac (1).
- LIZUINQUERIA 'lohikeria': desonesqueriaco edo *lizuinqueria* becatuaren corregitzea (1).
- MAINGU 'herren': itsuac zirenac vistarequinzaudela, *mainguac* ya sanatu edo sendaturic (4).
- MANATU 'agindu': *manatuzuen* sarzezala garzelan (2).
- MEACHATU & MEATCHATU 'mehatxu egin': *meachazenzuen* vizetze (sic) modu triste eta lastimagarriau (1); zeñequin *meatchazen* baititu Juez divinoac (12).
- MEDIANERA 'bitarteko': paratzendiolularic untaracoz *medianera* Maria S[anti]S[i]ma (5).
- MERCHEDÉ 'mesede': Goraiñic padecituican ere eguiten bazaicu auniz *merchede* zeruau Ema-teaz (21).
- NEGURTU 'neurtu': beti *negurzentu*ela trabaxu eta persecucioneac (6).
- ORAI 'orain': balinbazaude ofendizen *orai* berean (11).
- PARATU 'jarri': *parazentu* trabaxu eta persecucione zembaiten artean (17).
- POROGATU 'dastatu': picatzendute bein edo berze *porogatzeco* bezala (17).
- QUEXATU 'kexatu': Zergatic *quexatzemzara* bada becataria aurquizenzarenean trabaxuezembaiten artean? (10).
- SECULACO 'betiko': condenatua izanzen *seculaco* penetara (19).
- SINESTSI 'sinistu': nola ezbaytugu *sinestsi* nai ongui eguiatu (18).
- SOBERA 'gehiegi': direlaric *sobera* ligeroac padecitzentugun penac (7).
- TRABAXU 'lan, betebeharrak, neke': *trabaxu* edo miseria zembaiten artean (6).
- UNAN 'hona non': *unan* duzue Xangoycoaren Vildotsa, *unanduzue* munduco becatuaren mancha eta erretoen ekuenzalea (2)<sup>110</sup>.
- URRICALDU 'errukitu': naiz *urricalduyanere* bere Eriain nigarrez (8).
- VIGALI / VIALI / BIGALI 'igorri, helarazi': *vigalzeaz* trabaxu zembait mundu untara (12); *viali* etzezangatic vere senarrarengana (2); Usteduzue *bigalzendazcula* trabaxuoc uni dicha gueyago emategatic? (8).
- ZERENGATIC [+ subj = helburuzko balioa] *zerengatic* icustenzituztelaric (...) milagroac, guel-dizitezin Sendatuac (3).

## 8. ADIZKITEGIA

- BAGUENEZA 'bageneza' sines *bagueneza* (18).
- BAILIZ 'balitz' ignorantebat *bailiz* bezala (3).
- BAILU 'balu' ezagutzen *ezbailu* bezala (3).
- BALETZA 'balitza' acaba *baletza* trabaxuoc (8).
- BEZA Erran *beza* (11).
- BEZATE erran *bezate* (11).
- DA (4); *dela* (4), *dena* (4), *ezdena* (4), *den* (7), *baita* (8), *delaric* (21), *ezda* (22), *ezdela* (23).
- DABE 'die' *dabelaric* (4).
- DACU 'digu' (6); *dacuna* (5), *dacun* (8).
- DACUTE 'digute' (2).
- DADIEN 'dadin' desperdiciadadien (7); *ezdadiengatic* gutitu (7).

bili zituen 1828an. Baztanen eta inguru hurbilean, aldiz, bestelakoa omen zen joera: Elizondoko doktrinatan (*h)alchatu* (Salaburu 1987: 457 eta 468) nahiz *goratu* (Salaburu 1986: 819 eta 831) dokumentatu dira, azken hori Goyenechek ere erabili zuelarik (Pagola 1995a: 388); Echeverriaren doktrinak ere *goratu* dakar (1826: 47). Berako doktrinan, bestalde, *alichatu* dago (Pagola 1995b: 488), Zugarramurdikoan ere bai (Pagola 1994: 401) eta Ultzaman *goratu* erabili zen (Ibarra 1992: 937 eta 946), Beintza-Labaien bezalatsu (Pagola 1995b: 516 eta 528).

<sup>110</sup> Eite beretsukoak dira pertsona berak idatzitako beste prediku batetik jasotako hauek: *baiñan orran* [= horra non] *duzu Jangoycoaren vildots mancharic gavea* (Pagola 1995a: 256); *orraunduzu zure viziaren Jaun eta Jabea* (256); *lurraren criatzalea orraundugu* (260). Esku honek sortutako testuetatik at, ez dugu baztaneraz *hona+non* & *horra+non* multzoen tankera bereko soilketarik aurkitu.

- DADUZCA 'dauzka' *daduzcalaric* (17).  
 DAQUI 'daki' *badaqui* (7).  
 DAQUION 'dakion' *escapa ezdaquiongatic* (15), *atrebesadaquion* (sic) *gatic* (16).  
 DAUCATE 'daukate' (11); *daucatelaric* (21).  
 DAUCAZU 'daukazu' *baitaucazu* (11), *daucazu* (11).  
 DAUDE (6); *baitaude* (12), *dauden* (12).  
 DAZCU 'dizkigu' (1); *dazcun* (6), *dazcula* (8).  
 DAZTE 'dizkie' *daztela* (6).  
 DAZUE 'dizue' (12).  
 DETZAQUEGU 'ditzakegu' *direlaric* *trabaxuoc* *sofri detzaquegun* *baño aundiagocoac* (7).  
 DEZAGUN *ezagutdezagun* (14); *galezdezagungatic* (7).  
 DEZAN *iretsdezangatic* (16).  
 DEZAQUE 'dezake' *izandezaque* (7).  
 DEZAQUETE 'dezakete' *gure indarrec dezaqueten* *baño gueiago* (6).  
 DEZATEN *sentidezaten* (17); *ezagutu dezatengatic* (17).  
 DIEZADAN *comunicadiezadan* (5).  
 DIEZADAZU 'iezadazu' *Errandiezadazu* (11).  
 DIEZAZUN *vigaldiezazun* (11); *arguidiezazungatic* (13).  
 DIO1 *diolaric* (16).  
 DIO2 'dio, esaten du' *baitio* (4), *dion* (4).  
 DIOGU *diogularic* (5), *ezdiogu* (20).  
 DIOT 'diot, esaten dut' (6).  
 DIOTE1 *dioten* (16).  
 DIOTE2 'diote, esaten dute' *baitiote* (3).  
 DIOZOGUN 'diezaigun' *escadiazogun* (5).  
 DIOZUZU 'ieziaozu' *vigaldiozozu* *Xto gurelaunari (...)* *zure entendimentu itsu ori* (13); 'iezazkiozu' *vigaldiozozu* *Xto gure Jaunari unen bi Discipuloac* (20).  
 DIOZU *diozuna* (11).  
 DIRA *direnean* (6), *direlaric* (7), *dirrela* (10), *ezdira* (10), *ezbaitira* (12), *baitira* (20).  
 DITU *baititu* (10) (ik. TU).  
 DU (3); *duena* (4), *duenean* (4), *ezduela* (6), *duen* (7), *ezbaitu* (7), *duela* (11), *duelaric* (11), *eztu* (14), *badu* (20).  
 DUGU (5); *ezbaytugu* (18), *badugu* (20), *ezdugu* (20).  
 DUTE (6); *duten* (4), *dutenean* (7), *ezdute* (12), *ezbaitute* (17), *dutelaric* (18), *baitute* (21).  
 DUZU (14); *balinbaduzu* (11), *duzun* (13).  
 DUZUE (2).  
 GAITEN 'gaitezen' *izangaiten* (6).  
 GAITU (6); *gaituen* (6).  
 GAUDE (18).  
 GUENETZAQUE 'genitzake' *Zein paciencia aundiarequin sufriguenetzaquen!* [*trabaxu eta persecucione oc*] (18).  
 GUENEZAQUE 'genezake' *zein fruitu aundia ateraguenetzaquen otaric!* (18).  
 GUINIOTZOQUE 'geniezazkioke' *Zein humildade aundiarequin Emanguiniotzoquen esquerac Yangoycoari!* (18).  
 LETZAQUE 'litzake' *berraleztzaquela gure miseriac* (8).  
 NOAYE 'noa' (20).  
 NUEN *nic San Joanen Discipuloen aizinean eguinuembazala* (22).  
 TIO 'dizkio' *tiola* (14).  
 TU 'ditu' (4); *tuela* (6), *tuelaric* (10), *tuen* (12), *baitu* (16) (ik. DITU).  
 TUGU 'ditugu' *tugun* (7), *tugularic* (22).  
 TUZU 'dituzu' *Mereci baituzu infernu eternidade guzibateco penac* (12).  
 TUZUE 'dituzue' *tuzuelaric* (23).  
 TUZTE 'dituzte' (19); *tuztela* (4), *tuztenac* (9), *tuzten* (12).  
 ZACUN 'zigun' (22).  
 ZADIEN 'zedin' *izanzadien* (9).  
 ZAGOEN & ZAGON 'zegoen' *zagoelaric* (2), *baizagon* (3).  
 ZAICU 'zaigu' *bazaicu* (21).  
 ZAITEZTELA & ZAITEZTEN *etzaitetzela* *Enossentac izan* (14), *mancha etzaitetzten* (23).

ZAIZCU 'zaizkigu' *zaizcun* (18), *zaizcula* (19).  
 ZAIZUE (7); *bazaizue* (23).  
 ZARA (10); *zarenean* (10), *zaren* (20).  
 ZATE 'zareté' (24); *zataric* (23).  
 ZAUDE (11); *balinbazaude* (11).  
 ZAUDEN 'zeuden' *zaudela* (4), *zaudenac* (4).  
 ZAYO 'zaio' *zayonean* (15).  
 ZAZUE 'ezazue' *Sinetzazue* (14).  
 ZEN (1); *etzen* (1), *balinbazen* (2), *zela* (4), *zelaric* (10), *ezbalinbazen* (21), *ezbaizen* (23).  
 ZEZA / ZEZALA *sarzezala* (2), *pasazezan* (9); *viali etzezangatic* (2), *manifestazezangatic* (9).  
 ZEZATELA & ZEZATEN *garaizezaten* (2), *Iaquinzezate* (2); *sinetzezate* (4).  
 ZINTUZUEN 'zenituzten' (24).  
 ZION (1); *baizion* (5).  
 ZIOTEN *ziotela* (10).  
 ZIREN (3); *zirenac* (4).  
 ZITEZIN 'zitezen' *gueldizitezin* (3); *gueldietzitezingatic* (5).  
 ZITUEN (2); *zituela* (4), *zituellaric* (4), *baitzituen* (9).  
 ZITUZTEN (9); *zituztelaric* (3).  
 ZITZAYEN 'zitzaien' (10) (ik. ZIZAIEN).  
 ZIZAIEN 'zitzaien' *baitzizaien* (3) (ik. ZITZAYEN).  
 ZIZAIZCON 'zitzaizkion' *baizizaizcon* (9).  
 ZIZU 'itzazu' *Edequizizu bada becataria veguiac* (13).  
 ZIZUE 'itzazue' *seguizizue unen Virtute aundiac* (23).  
 ZUEN (1); *zuelaric* (1), *bazuen* (2), *zuena* (2), *etzuela* (3), *zuela* (3), *baitzuen* (5), *zuenean* (9),  
*baizuen* (10).  
 ZUTEN (2); *baitzuten* (3), *zutela* (9), *zutelaric* (9).

## 9. AZKEN HITZA: TESTUAREN EGILEAZ

Lan honen 2. atalean adierazienez, zalantza handirik gabe lotu daiteke testu honen letra *NAOn* bildutako baztanerazko predikuetarik bostetan (Pagola 1995a: 243-260 eta 344-375) agertzen denarekin. Sermoiaren azterketan zehar aintzat hartu diren hizkuntza ezaugarri gehienetan ere nabarmena iruditu zaigu testu honen eta haien arteko kidetasuna; esaterako, badira *NAO*-ko aipatu predikuetan eta idazki honetan bakarrik dokumentatuta dauden aldaerak (ik. 106, 107 eta 110. oharra).

Aurreko arrazoiei gehi dakiekeen testu mailako ahaidetasunik ere badago. Horren frogara, gure ustez, aztertu dugun predikuko honako pasarte hauek:

*Naidugu gozatu eternidade guzico gloria padecitu gave mundu untan?* (20).

*Bada gure Capitana eta Maistrua ezbalinbazen sartu zeruan, berea zuelaric, padecitu gaventanic ainberze trabaxu, burla eta persecucione: nola pretendizendugu guc an sarzea, gurea ezdelaric, padecitu gabentanic trabaxuac! Goraiñic padecituican ere eguiten bazaicu auniz merchede zeruau Emateaz, nola pretendizendugu Justiciaz padecitu gave?* (21).

Izan ere, bete-betean iruditzen zaizkigu *NAOn* bildutako testuetako beste hauen molde berekoak:

*Bada, au erran balinbazuen beretaco Redemptoreac, ezbalinbazuen sartu nai ceruan, herenciaz tocatzen citzayolaric, Aita eternuaren Semea cen bezala, vide penoso eta latz untaz baicic, nola pensadezaque*

*cristaubac izan bearduela unendaco berze videric erreinu unen logratzeco?* (Pagola 1995a: 246).

*...goraiñic aunitz sufritzen eta padecitzendugularic ere etzaicu favore aundi bat eguinen?* (251).

*...aunitz padecituycan ere eguinenzaicula aunitz merchede gloria unen emateaz* (255).

*Eta naidugu padecitu gaventanic logratu ainberze dicha?* (372).

Pasartearen arteko hurbiltasunaren argudioa, besterik gabe, ez da azpian esku bakarra dagoela ziurtatzeko adinakoa, prediku egileak sarritan antzeko gaiez aritzen zirelako, pareko irudiak erabiliz eta baita aurrekoen testuak kopiatuz ere; baina orain arte emandako gainerako arrazoiak kontuan izanik, hurbiltasun horren atzean hainbat testutan zehar ideia bera azaleratu nahian dabilen pertsona bakar baten arrastoa nabaritzen delakoan gaude. Bestalde, alderatu diren pasarte hauek aurrez emandako arrazoiekin ere bat egiten dute, haietan agertzen diren *goraiñic* eta *gabentanic* amankomun horiek ez baititugu letra desberdineko inongo idazkitan aurkitu. Honengatik guztiagatik, aurkeztutako testua eta Bonaparte Ondareko baztandar sermoi bildumako 2. predikua eta 14.etik 17.era bitartekoak esku berberak idatzi zituela uste dugu, nahiz eta zoritxarrez egilearen izenik ezagutu ez.

#### LABURPENA

Aztergaia 1791ko abenduadiraiko prestatu zen baztanerazko prediku bat da. Egilearen izenik ez dakarren arren, Bonaparte Ondarean bildutako sermoi garaikide batzuk eta honako hau esku berberak idatzi zituela esan daiteke. Idazkia ezagutzera emateaz gain, XVIII. eta XIX. mendeetako beste hainbat testurekin alderatu da, orduko baztandar euskara idatziaren zenbait ezaugarri gogor ekarri eta laburbildu asmoz.

#### RESUMEN

El objeto de este estudio es un sermón de Adviento escrito en lengua vasca en 1791. La identidad de su autor se desconoce, si bien se trata de la misma mano que escribió algunas de las pláticas baztanesas que se conservan en el Fondo Bonaparte. Además de los aspectos más relevantes de dicho sermón, se comentan también algunos rasgos característicos del euskera baztanés de la época, a partir de la comparación de este texto con otros de los siglos XVIII y XIX.

#### RÉSUMÉ

L'objet de cette étude concerne un sermon de l'avent écrit en langue basque en 1791. On ne connaît pas l'identité de son auteur, par contre il s'agirait du même auteur qui écrivit quelques-uns des sermons baztanais qui ont été recueillis par le Prince Bonaparte et qui sont actuellement dans l'Archive de Navarre. En plus des aspects éminents de ce sermon, on commente aussi quelques traits caractéristiques concernant l'euskera baztanais de l'époque en comparant le texte avec d'autres du XVIIIe et XIXe siècle.

#### ABSTRACT

The aim of this study is an Advent sermon written in Basque language in 1791. The identity of its author is not known, but it is sure that we are in

front of the same hand who wrote some of the talks from the valley of Baztan which were collected by the Prince Bonaparte and which are kept in the Archives of Navarre. Apart from the more relevant aspects of this sermon, some of the most characteristic features of the Basque from the valley of Baztan of that time are mentioned by comparing this text with some others from the 18th and 19th centuries.